



Hizkuntza etorkinak: Azterketa eta erabilera didaktikoa

Kepa Larrea
Aintzane Etxebarria
Asier Romero
Iñaki Gaminde
Urtza Garai

© 2013. **Kepa Larrea, Aintzane Etxebarria, Asier Romero, Iñaki Gaminde eta Urtza Garai**

ISBN: 978-84-695-9330-1

Irudiaren iturria: <http://www.grnadablogs.com>

Ezagutza- NoCommercial- Compartilgual (by-nc-sa)

Dokumentu hau Creative Commons lizentziaren menpean dago



Egiletza onartuz gero, lizentziaren bidez liburu honen edozein uztapen baimentzen da. Liburu honen uztapenak, erabilera ez komertzialerako erabilera mugatua du. Liburu honen, beste lan deribatu batzuen sorkuntza baimentzen du, beti eta hedatzeko orduan lizentzia berbera mantenduz. <http://creativecommons.org/Version4>

Hizkuntza etorkinak: Azterketa eta erabilera didaktikoa

Kepa Larrea
Aintzane Etxebarria
Asier Romero
Iñaki Gaminde
Urtza Garai

AURKIBIDEA

1. Sarrera
2. Erabilera Didaktikoa
 - 2.1. Eskola eta ikasle etorkinak azken urteetan
 - 2.2 Eskola-komunitatearen eta irakaslearen papera
 - 2.3. Gure proposamena kulturarteko komunikazio-gaitasunera bidean
 - 2.4. Laburbilduz
3. Hizkuntzak
 - 3.1. Afrika
 - 3.1.1. Arabiera
 - 3.1.2. Amazigh
 - 3.1.3. Mandinkera
 - 3.1.4. Joruba
 - 3.1.5. Igboera
 - 3.1.6. Lingalera
 - 3.1.7. Wolof
 - 3.2. Amerika
 - 3.2.1. Aimara
 - 3.2.2. Ketxua
 - 3.2.3. Guaraniera
 - 3.3 Asia
 - 3.3.1. Txinera
 - 3.3.2. Japoniera
 - 3.3.3. Punjabera
 - 3.3.4. Tagaloa (Filipinera)
 - 3.4. Europa
 - 3.4.1. Portugesa
 - 3.4.2. Galegoa
 - 3.4.3. Gaztelania
 - 3.4.4. Frantsesa
 - 3.4.5. Katalana
 - 3.4.6. Italiera
 - 3.4.7. Errumaniera
 - 3.4.8. Alemana
 - 3.4.9. Ingelesa
 - 3.4.10. Norvegiera
 - 3.4.11. Niderlandera
 - 3.4.12. Poloniera
 - 3.4.13. Ukrainiera
 - 3.4.14. Errusiera
 - 3.4.15. Lituania
 - 3.4.16. Hungariera
 - 3.4.17. Georgiera
4. Hotsak
 - 4.1. Bokalak
 - 4.1.1. Aurreko bokalak
 - 4.1.2. Atzeko bokalak
 - 4.1.3. Erdiko bokalak
 - 4.1.4. Bokal sudurkariak

- 4.1.5. Bokal luzeak
- 4.2. Kontsonanteak
 - 4.2.1. Herskariak
 - 4.2.2. Sudurkariak
 - 4.2.3. Frikariak
 - 4.2.4. Afrikatuak
 - 4.2.5. Dardakariak
 - 4.2.6. Albokariak
 - 4.2.7. Hurbilkariak
- 4.3. Prosodia
 - 4.3.1. Azentua
 - 4.3.2. Tonusa
 - 4.3.3. Azentu tonuduna
- 5. Bibliografia

1. SARRERA

Behingo baten, urtean asko legez, etxerantz gentozela, metroa gainezka, jendea txor-txor ari zen atertu barik, ostirala izango zen nonbait. Gu, inoizko erneen ameneko, orduantxe kargutu ginen hainbestetan anartean irakurrita geneuzkan hots haiek orain gure inguruan zirena eta adi genitzakeena. Hotsez eta kolorez beterik zegoen metroa! Ordutik isilpean, jakingurak indar eraginda, olgetan-benetan hasieran, sistematikoago geroago, guretzat guztiz berria eta aberasgarria izan zitezkeen hizkuntza etorkinak aztertzeari ekin genion.

Epe laburrera jakin genuen ehundazak zirela gure inguruan egiten ziren hizkuntza horiek (Uranga eta lag., 2008), urte gutxigarrenean, batek badaki zenbat izango diren orain, guk geuk batu ditugu honezkero batzuk zerrenda horretan agertzen ez direnak. Horietariko batzuek ikasgeletarako saltoa ere egin dute. Batzuk agirian, beste batzuk isilpean edo ahopean, baina agirian egon ezak ez du esan nahi ez direnik.

Hemen kontaktuak lortu, hor lekukoak ezagutu, han grabazioak egin; ekinbide hura bere emaitzak ematen hasi da, hainbat dira egin ditugun saioak eta batu ditugun datuak. Horregatik uste izan dugu unea heldu dela plazara agertzeko eta jendeari hartu dizkiogun apur batzuk aurkezteko eta atzera ere jendarteratzeko.

Lan hau egitean gogotan eduki ditugu ikasgeletan hizkuntza etorkinekin egunean-egunean jarduten dutenak, eta material xume hauekin irakasleen kulturarteko komunikazio-gaitasuna lantzeko bidea eman nahi dugu.

Irakaslearen komunikazio-gaitasunaz sarritan hitz egin da; pragmatika eta soziolinguistika barnean hartzen dituen eta ezagutza linguistikotik haratago doan kontzeptu bezala definitua izan da. Horrek kulturarteko komunikaziora garamatza, eta bi kontzeptuon baturak kulturarteko komunikazio-gaitasunera. Azken honek ezaugarri kognitiboak nahiz konatiboak eta jarrerarekin lotura duten ezaugarriak bere barnean hartzen ditu. Gure lana aniztasun horretan kokatzen dugu, alegia, etorkinen hizkuntzaren eta kulturaren ezagutza orokorra lortzeko tresna lagungarria izan daiteke irakaslearentzat; hizkuntzaren beraren ezaugarriari (izena, hizkuntza familia, hiztun kopurua, estatusa eta kokapen geografikoa) ez ezik, ahoskerari eta idazkerari ere garrantzia ematen diegulako, besteak beste, honako helburuok lortzeko asmotan:

- Ikasle etorkinen motibazioa piztea, irakasleak bere hizkuntzan interesa duela ikusten du eta.

- Ikasle etorkinak bere buruarengan konfiantza izatea, irakasleak lagundu egiten baitio ama-hizkuntzaren ezaugarriak ateratzen eta ikasten ari den hizkuntzarekin parekatzen.
- Ikaslearen egokitzapenean laguntzea, ikaslearen jatorrizko herrialdeko ohitura soziolinguistikoak aintzat hartzen dira, eta bertakoekin parekatzeko bidea ematen da.

Helburu hauek lortzeko, argi dago irakasleak ikasteko prest egon behar duela eta interesa izan behar duela etorkinen hizkuntzetan eta kulturetan; izan ere, ezagutza da beldurra eta mesfidantza guztiak uxatzeko tresnarik aproposena.

Lan hau osatzeko iturri bibliografikoetan eta aurrez aurre egindako grabaketetan oinarritu gara; izan ere, gure artean ditugun etorkinengana jo dugu guretzat arrotzak izan diren hizkuntzak grabatzeko eta hizkuntza horiek zer irakatsi diezaguketan jakiteko asmoz.

Iturri bibliografikoetatik hizkuntzen gaineko informazioa bildu dugu, batik bat, inkestak prestatzerako orduan lagungarri izan baitzaizkigu, eta eremu honetan Internetek garrantzi handia hartu duela esan behar dugu, informazio asko eta asko bertatik atera dugu eta. Hemen aurkezten dugun lana asko luzatuko zen edo ezinezkoa zatekeen, denboran urte apur batzuetan atzera egingo bagenu eta Internet edukiko ez bagenu.

Bestetik, iturri bibliografikoetan lortutako informazioa oinarri hartuta, zuzeneko ahozko iturrietara jo behar izan dugu ezinbestean. Horretarako, arazorik handienetakoa kontaktua egiten laguntzen duten bitartekariak lortzea izan da, eta sarritan, ezagunen, familiakoen edota lankideen laguntza behar izan dugu ahozko iturri horietara hurbiltzeko.

Lekukoen ezaugarriei gagozkielarik, gehienak, denak ez esatearren, familia, lagunak eta bizimodua atzean utzi behar izan dute hemen egokitzeko. Ezaugarri anitzetakoak dira; hizkuntzari dagokionez, euron jatorrizko hizkuntzetan alfabetatuak nahiz alfabetatugabeak eduki ditugu. Estandarizazio maila handia daukaten hizkuntzen hiztunak eduki ditugu, baina baita euren hizkuntza bat ere estandarizatu barik daukatenak ere. Euren estatuetan, eta batzuetan estatu askotan, ofizialak diren hizkuntzetako hiztunak eduki ditugu, baina, aldi berean, euren lurraldeetan bertan guztiz gutxiagotuta dauden hizkuntzetakoak ere bai. Ez gara munduan gaindi euskaldunok bakarrak sinestarazi nahi izan digutenak eguzkirik ez zela, hodeitzar batek estalia baitzen gordea. Beste askori gauza bera sinestarazi nahi izan diete; hainbestearino non, gure Eskolan berriki eginiko jardunaldi batzuetan entzun ahal izan genuen moduan, sinetsi egin duten hala dela eta hizkuntza handitan baizik ezin ediren daitekeela abaroaren berotasuna.

Ahozko korpusa biltzeko hurrengo hizkuntza hauek grabatu dizkiegu lekukoei: Arabiera, Amazigh, Mandinkera, Joruba, Igboera, Lingalera, Wolof, Aimara, Ketxua, Guaraniera, Txinera, Japoniera, Punjabera, Tagalaoa (filipinera), Portugesa, Galegoa, Gaztelania, Frantsesa, Katalana, Italiera, Errumaniera, Alemana, Ingelesa, Norvegiera, Nederlandera, Poloniera, Ukrainiera, Errusiera, Lituania, Hungariera eta Georgiera. Beste batzuetan jardun dugun arren, entseiukarreen aurkezten dugun lan honetarako hauexetara mugatu dugu gure jarduna. Ikusiko dugu honek zer harrera daukan, nork zer esaten duen eta horren arabera geroa gobernatuko dugu, aterako dugun bigarren bat edo beste lan batzuk edo betiko utziko ditugun tiraderan.

On da letrak agertzea eta irakurtzea baina gure lana herrena litzateke aipatzen ditugunak entzuteko aukera emango ez bagenu, horregatik liburuxkarekin batera CD bat aurkezten dugu irudietako horiek entzun ahal izateko.

CDa bi atal nagusitan banatuta ematen dugu: Hizkuntzak eta Hotsak. Hizkuntzen atalean, aurreko lerroetan zehaztutako hizkuntzak ditugu. Edozein hizkuntzaren gainean klikatuz gero, ikusgai eta entzungai dauden eremuak hizkuntzaren hedadura, bokalak, kontsonanteak, azentua eta

intonazioa dira; bertara joanez gero, atal bakoitzeko adibideak entzun daitezke. Zenbait kasutan ezin lortu izan ditugu bibliografietan ematen diren adibideak gure lekukoek berdin egitea eta liburuan agertu arren, ezin CDan entzun daitezke, dela desberdin egiten dituztelako, dela lekuko aproposik ez dugulako topatu hizkuntza horretan. Beste batzuetan, entzule trebea konturatuko denez, ematen dugun hizkuntza horretako iturri bibliografikoetan oinarritutako estandarra ez da guztiz bat etortzen gure lekukoek emandakoarekin, dialekto eta barietate desberdinak edukitzea ez da euskaraz gertatzen den kontua, aitzitik, munduko hizkuntza guztien arazoa da. Hizkuntza oso ondo estandarizatuta eta normalizatuta dagoen kasuetan, gure lekukoek ez dute arazorik izaten molde estandarra emateko. Haatik, hizkuntzaren egoera oso bestelakoa denean, gerta daiteke eta gertatzen da lekukoek hitz egitea beste barietate batean eta ez egitea doi-doi bibliografietan kausitzen den barietatea. Nolanahi ere den, uste dugu ezen, hemen paratu ditugunek nahikoa ondo adierazten dituztela hizkuntza horien guztien hotsen dibertsitatea.

Hotsen eremuan, aurreko ataletako datuetan oinarrituta, hiru atal bereizi ditugu: bokalak, kontsonanteak eta prosodia. Hizkuntza bakoitzeko bokalen (aurreko bokalak, atzeko bokalak, erdiko bokalak, bokal luzeak eta sudurkariak) eta kontsonanteen (sudurkariak, hurbilkariak, herskariak, frikariak, dardarkariak, albokariak eta afrikatuak) bereizgarriak aipatu ditugu, eta bakoitzaren adibideak jarri ditugu. Hizkuntzen xehetasun batzuk azaltzen diren atalean bezala, hotsen eremuan ere, adibideak entzun egin daitezke. Era berean, prosodiaz aritzean, tonua, intonazioa eta azentua hartu ditugu hizpidetzat.

Lan hau sarrera orokorra eta bibliografia kenduta, hiru atal nagusitan banatua dago: erabilera didaktikoa, hizkuntzak eta hotsak.

Erabilera didaktikoan, ezagutzen ez ditugun, eta era berean, geure artean ditugun hizkuntzen ezaugarri batzuk jakiteak zer eragin izan dezakeen Komunikazio Gaitasunean azaltzen da; izan ere, eskola-eremuan nahiko hedaturik egoteaz gain, izugarrizko garrantzia ematen zaio kontzeptu horri. Hizkuntzak atalean, aztertu ditugun hizkuntzen inguruko informazio homogeneoa eta orokorra ematen ahalegindu gara, besteak beste, irakasle lanetan ari direnek euren ikasleen hizkuntzaren inguruko ezaugarri batzuk eskuragarri izan ditzaten. Azkenik, aurreko atalean aurkeztutako hizkuntzen hotsen sailkapen orokorra egin dugu. Hori guztia mapa, grafiko eta taulen bidez aurkeztu dugu irakurlearen lana errazteko asmoz.

Sarrera hau mukurutzeko nahi genituzke gure egin euskal idazlerik handienaren hitz haiek, har ezazue lantxo honen fruitua, barreneko mamia, hau dasta ezazue, hau eskuzta ezazue, irakurtzen duzuela, ez lehiaz, ez gaingiroki eta ez arbuiatzeko kontuan ere. Baina intentzio on batekin, zuena, zuek egina baitzenute bezala, eta baldin halatan eta orduan, bat ere gozorik edo zaporerik edireten badiozue, zeren hura guztia lekukoengandik heldu baitaiteke, eta ez gugandik faltarik baizen, haiei eskerrak errenda iezazkiozue, eta gutaz ere akatsak barkatzeaz oroit zaitezte.

2. ERABILERA DIDAKTIKOA

Gaur egun gero eta etorkin gehiago ditugu gure eskoletan eta irakasleei errealitate berri horri aurre egiteko eskatzen zaie euren eguneroko lanean, nahiz eta irakasleak izan behar dituen gaitasunen deskribapenak eta lortu behar dituen helburuak zehazten diren, azken horiek lortzeko bideak beste toki batzuetan (Katalunia eta Canada) baino urriagoak dira Euskal Autonomia Erkidegoan.

Horrenbestez, garrantzitsua da azken urteetako errealitate berri horretan murgilduta dauden profesionalei bidea leuntzea kulturarteko komunikazio-gaitasunerantz, hain zuzen ere. Horretarako, harreman estua duten kontzeptu biren arteko lotura egin dugu: komunikazio gaitasuna eta kulturarteko komunikazioa. Behin hori eginda, kulturarteko komunikazio-gaitasunaren definizioa eta ezaugarriak zehaztu ditugu, horiek baitira gaur egungo edozein irakaslek, bizi garen gizartearen ezaugarriak kontuan izanik, izan behar dituen tasunak.

Azkenik, kulturarteko komunikazio-gaitasuna garatzeko proposamena egin dugu lan honetan, eta atzerriko hizkuntza jakin batzuen oinarrizko ezaugarriak emateaz gain, horietan ahoskatzeko eta idazteko xehetasun batzuk aipatu ditugu. Proposamen horrek ikasle etorkinei ekar diezazkiekeen onuren berri ematen digu; besteak beste, hizkuntzen mailako afektibitatea eta motibazioa. Horren adibide, Madrilgo Erkidegoan 2003-2004 urtean egin zen ikerketa dugu. Azken finean, lan honetan lortu nahi duguna gaur egungo irakasleari lagungarri izan dakioken materiala egitea da; alegia, irakasleak kulturarteko komunikazio-gaitasunerako bidean tresna baliagarria izatea eskatzen zaion gaitasun maila lortzeko, eta ahalik eta tratamendu didaktikorik egokiena izateko etortzen zaizkion ikasle etorkinekin.


2.1. Eskola eta ikasle etorkinak azken urteetan

Arrazoi ezberdinak direla medio; hala nola, gosea, bizimodu hobea izateko esperantza, gatazkak jatorrizko herrialdean... azken urteetan gero eta etorkin gehiago iritsi zaizkigu Euskal Autonomia Erkidegora, eta gizartearen gertatu den aldaketa horren ondorioz, eskoletako ikasle-etorkinen kopurua asko hazi da. Hona hemen EUSTATEk argitaratu dituen datuak ikasketen araberako ikasle etorkinen kopuruari dagokionez:

Ikasle etorkinen kopurua urtez urte eta ikasketen arabera				
	2007	2008	2009	2010
Euskal Autonomia Erkidegoa				
Haur Hezkuntza	120,1	123,1	124,9	126,2
Haur Hezkuntza. 1. zikloa	61,5	62,9	63,1	63,4
Haur Hezkuntza. 2. zikloa	58,6	60,3	61,8	62,9
Lehen Hezkuntza	103,2	107,2	111,4	115,6
Lehen Hezkuntza. 1. zikloa	36,6	37,5	39,2	40,7
Lehen Hezkuntza. 2. zikloa	34,3	36,4	37,2	38,0
Lehen Hezkuntza. 3. zikloa	32,3	33,3	34,9	36,9
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza	81,8	81,9	82,6	83,3
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza. 1. zikloa	31,9	32,2	33,0	33,9
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza. 2. zikloa	49,9	49,7	49,6	49,4
Derrigorrezkoa ez den Bigarren Hezkuntza	35,1	34,7	34,8	34,8
Unibertsitateko Hezkuntza	105,6	103,0	100,1	97,5

2.1. Irudia: Ikasle etorkinen kopurua urtez urte eta ikasketen arabera


Eskolara sartzeko orduan, etorkinen jatorrian eta aukeratzten duten zentro publikoan zein pribatuan arreta jarriz hurrengo datuak argitaratu zituzten F. Etxeberriak eta K. Eloseguiak 2010. urtean:



2.2. Irudia: Atzerritik datozen ikasleen kopurua jatorriaren eta zentroaren arabera

2007. urtean “Kulturartekotasunerako eta ikasle etorri berrien inklusiorako programa” txostena argitaratu zuen aditu talde batek egindako jardunaldietatik abiatuta. Txosten horrek azken urteetako ikasle etorkinen kopurua aztertzeaz gain, gai honen inguruan lortu beharreko helburuen berri ematen du.

Hizkuntz-ereduak kontuan hartzen baldin baditugu, hurrengo datuak argitaratu zituzten aipatutako txostenean:



2.3. Irudia: Hizkuntz-ereduen araberako banaketa

Era berean, lortu beharreko helburuen artean, kultura arteko hezkuntza sustatzea proposatzen dute hurrengo parametro hauetan: berdintasunean, elkartasunean, aniztasunaren errespetoan. Gainera, ikasle etorri berriak eskolatzeko eta gizarteratzeko lan egitea eta ikasle etorri berriei EAEko eskoletan arrakasta izaten laguntzea ere garrantzizkotzat jotzen dute, bertako hizkuntza ofizialen eta bereziki euskararen irakaskuntza alde batera utzi gabe.

Esan beharra dago, errealitate horren aurrean, gizarteak oro har, eta eskolak zehazki, jatorriz atzerrikoak diren ikasleak eskolaratzeko orduan, noraezean ikusi duela bere burua maiz, eta zenbait arazori, sarritan baliabiderik izan gabe, aurre egin behar diola. Gu geu eskolan zentratuko gara, irakasleari lagungarri izan dakioken materiala baita eskuartean duguna. Esan bezala, eremu akademikoak zenbait oztopori aurre egin behar die atzerriko ikasle horiek eskolan hartzeko orduan, besteak beste, F. Etxeberriak eta K. Eloseguiak aipatzen dituzten honako hauei:

“a) Una mayor concentración del alumnado inmigrante en los centros públicos; b) La adquisición de la(s) lengua(s) de la escuela no siempre está garantizada para el alumnado inmigrante; c) Unos rendimientos más bajos en las áreas de ciencias, matemáticas y lectura, con diferencias muy importantes, según los últimos informes PISA; d) Una casi nula atención a las lenguas y culturas de origen del alumnado inmigrante; e) Un endurecimiento de la legislación europea y española con respecto a los inmigrantes en general y los menores en particular; f) La existencia de un relativamente elevado rechazo a los inmigrantes, en torno al 30% de alumnos contrarios a la presencia de inmigrantes en las aulas, y otras formas de rechazo social; g) La formación del profesorado que se ocupa del alumnado inmigrante tiene todavía muchas carencias y sus propias expectativas de cara al futuro no son muy optimistas.” (2010: 235)


Ez bakarrik ikasleek, irakasleek eta oro har eskola-komunitateak ere baditu zenbait oztopo eta zeregin errealitate horri aurre egiteko:

“Ikasle berrien hizkuntza(k) errespetatzea eta balioestea, eskola eta curriculuma egokitzea, irakasleak birziklatzea eta, azken batean, gizarte- eta kultura-aniztasun sortu berria kudeatzeko modua.” (C. Giménez, 2010: 43)

Egoera honen aurrean, denoi bururatzen zaigun galdera hauxe da: zer baliabide eta jarrera izan behar ditugu ikasle gazte etorkin horiei harrera egokia egiteko?

D. Lasagabasterren arabera, hizkuntzekiko jarrerak hiru osagai ditu: kognitiboa, afektiboa eta konatiboa; eta ondorengo irudia proposatzen du hizkuntzekiko jarrera azaltzeko orduan (2003, 33):

Componentes de la actitud



2.4 Irudia: Hizkuntzarekiko jarrerari dagozkion osagaiak

Irudi honetan ikus daitekeen bezala, jarrerak hiru osagai nagusi ditu: kognitiboa, bertan hizkuntzarekiko ideiak eta usteak sartzen dira; afektiboa, hizkuntzarekiko sentimenduak kontuan hartzen dira, alegia, hizkuntza jakin hori aintzat hartzen dugun ala ez; konatiboa, azken hau jarrera positiboarekin edota negatiboaren erlazioatuta dago, adibidez, gaitasun linguistikoa hobetu nahi duen norbaitek ikastaroak hartuko balitu, jarrera positiboa izango luke.

Beraz, hau guztia kontuan izanik, zein izango litzateke haur etorkinak ikasgelan dituen irakaslearen jarrera egokia? Bada, horren inguruan asko esan eta idatzi bada ere, aditu gehienak bat datoz honako ideia honetan: umeak bere lehen hizkuntza garatzen jarraitu behar du eta horretan irakaslearen jarrerak zerikusi handia du. Alegia, lehen hizkuntzaren garapena eskolako hizkuntzen garapenean lagungarri izan daiteke. Irakasleak, gainera, jakinaren gainean egon behar du haur etorkin horiek noizbehinka euren ama hizkuntzan aritzeak ikasteko orduan lagundu egiten diela, ikaskuntza errazago egiten zaielako eta ez direlako intelektualki hainbeste nekatzen. (A. Barquín; U. Ruiz Bikandi, 2007: 47)

Irakasleak haur etorkinen ikaskuntza erraztu egin behar baldin bada, euren ama hizkuntzarekiko sentsibilitatea izaten, eta neurri batean, atzerriko hizkuntza hori bultzatzen, irakasleak ezagutu egin behar ditu eskolan dituen ikasleen hizkuntzak, ez hitz egiteko moduko zehaztasunaz, baina bai modu orokorrean. Aipatu beharrekoa da, lan hau egiteko etorkinak grabatzen ari ginen bitartean, eskarmentu gazi-goza izan genuela; hots, ikasle etorkin horietako asko Helduen Hezkuntzan ari ziren ikasten, eta harrigarria badirudi ere, euren irakasleetako batzuek, espero genituenak baino gehiagok, ez zekiten euren ikasle etorkinen hizkuntzaz eta

kulturaz ia ezer. Are gehiago, irakasle horietako asko guztiz nahastuta zegoen euren ikasle etorkinek zer ama-hizkuntza hitz egiten zuten, edota hizkuntza ala dialektoa ote zen. Ildo horretatik, garrantzitsu deritzogu irakaslearen komunikazio-gaitasunaren barnean aurrean dituen ikasle etorkinek hitz egiten dituzten hizkuntzen gaineko nondik norako nagusiak jakiteari.

2.2 Eskola-komunitatearen eta irakaslearen papera

Hizkuntza gizarteko partaide sentitzeko tresnatzat hartzen baldin badugu, orokortasun horren barnean hainbat funtzio izan ditzake. E. Bernárdezen arabera, hizkuntzak ez dira komunikaziorako soilik erabiltzen, alegia komunikazioa informazio trukaketa gisa hartzen baldin badugu, labur geratzen gara; izan ere, sarritan mintzatzen gara eta ez dugu ezer berririk esan nahi, esaterako, igogailuan topo egiten dugun norbaiti hitz egiten diogunean, ez da izaten zerbaiten berri emateko, baizik eta aurrean dugunarekin gutxieneko harremana mantentzeko. Beraz, E. Bernárdezen ustez, hizkuntzen funtzioetako bat bada aurrean dugunarekin komunikazioa lortzea, baina zentzu sozialean, hots, gehienetan ez gara komunikatzen informazioa emateko, baizik eta gizarteko edota taldeko partaide sentitzeko ez ezik, errealitatearen errepresentazioa egiteko ere bai. Dena dela, eskola-eremuan informazioa xedetzat duen komunikazioa areagotu egiten da. (1999: 277-281).

Hizkuntza, hortaz, komunikazio-tresna garrantzitsutzat hartzen baldin badugu, *komunikazio* kontzeptua zentzu zabalean hartuta, igorle eta hartzailearen arteko elkarreragina ulergarria izan behar da; gerta liteke, ordea, hizkuntzaren komunikaziorako balioa ezereztea hartzaileak eta igorleak ez baldin badute elkar ulertzen, bai hizkuntza bai kultura ezberdinak dituztelako. Egoera hori ekiditeko 2005ean E. Coelhok “escuelas y aulas inclusivas” kontzeptuak aipatu zituen eta eskolak eleaniztasuna, kulturantzatasuna eta arraza aniztasuna bultzatu behar dituela proposatzen du, horretarako ezinbestekotzat jotzen du eskola-komunitatea osatzen duten kide guztien ahalegina familiak eta ikasleak eskolan bertakotzen eta aintzat hartzen. Era berean, irizpide batzuk aipatzen ditu horretarako bidea errazteko:

- Beste hizkuntza batzuetan egindako materialen erakusketa.
- Eskolan jartzen diren mezurik garrantzitsuenak hizkuntza ezberdinetan jartzea.
- Eskolaz kanpoko ekintzetan beste kultura batzuetako ikasleen ekintzak eskeintzea.
- Kultura ezberdinetako egun bereziak ospatzea.
- Irakasleak atzerriko hizkuntzetan trebatzea.

E. Coelhok proposatzen dituen irizpide horietan ezinbestekoa da irakaslearen papera; izan ere, irakasleak sustatu behar du ikasle etorkinen ongizatea, motibazioa eta ikaskuntza eskola-eremuan.

Azken ideia honetatik abiatuta, zilegi litzateke geure buruari galdetzea zer ezaugarri izan beharko litzukeen errealitate horri aurre egin behar dion irakasleak. Galdera honi erantzuteko bi kontzeptu nagusi ditugu, era berean elkarren osagarri direnak:

- Komunikazio-gaitasuna
- Kulturarteko komunikazioa

Bi kontzeptu horien loturatik kontzeptu berri bat sortu da, kulturarteko komunikazio-gaitasuna izenekoa eta ondorengo lerroetan azalduko dena. Komunikazio-gaitasunaren inguruko definizio eta sailkapen ugari argitaratu dira (Hymes, 1972; Canale eta Swain, 1980; Savignon, 1983; Bachman, 1990; Celce-Murcia, Dörnyei eta Thurrell, 1996), denak bat etorri dira hurrengo esaten: komunikazio-gaitasuna hizkuntz gaitasuna edo gaitasun linguistikoa baino haratago doan kontzeptua dela; izan ere, Europako Erreferentzi Marko Bateratuari jarraituz, kontzeptu honek gaitasun linguistikoa, soziolinguistikoa eta pragmatikoa besarkatzen ditu.

Gaitasun linguistikoa lexikoaren, gramatikaren, semantikaren, fonologiaren, idazkeraren eta ahozkeraren ezagutzari dagokio. Gaitasun soziolinguistikoa hizkuntz egiturekin erlazionaturik dauden bestelako ezaugarrien bilduma da: arreta-arauak, herri-hizkera, dialektoa eta azentua. Erregistroa ere hemen sartuko genuke.

Gaitasun pragmatikoa diskurtsoaren egiturarekin eta hizkuntz funtzio jakinekin lotuta dago, alegia, diskurtso egokia lortu behar da testuaren egituran arreta jarritz, baina era berean, zer lortu nahi dugun diskurtso horren bitartez ere garrantzitsua da. (U. Garay eta A. Etxebarría, 2010: 43).

Definizio hau irakurrita hurrengo galdera bururatzen zaigu: zer lotura dago komunikazio-gaitasuna eta kulturarteko komunikazioaren artean?

R. Vilák dioenez, komunikazio-gaitasunak baditu zenbait ezaugarri kulturarteko komunikazioaren ikerketa bultzatu dutenak. Bere esanetan, komunikazio-gaitasunak kulturarteko komunikazioaren ikerketa eragin du komunikatzeko beharrianak kode linguistikoz gain, bestelako ezaugarriak ere eskatzen dituelako; komunikazio egokia lortzeko asmoa, testuinguruaren garrantzia eta bertara egokitzeko gaitasuna.

Komunikazio-gaitasuna eta kulturarteko komunikaziotik hurrengo kontzeptua eratorri da: kulturarteko komunikazio-gaitasuna. R. Vilák honela definitzen du:

“La competencia comunicativa intercultural se define como la habilidad para negociar significados culturales y ejecutar conductas comunicativas eficaces (Rodrigo, 1999). Esta eficacia se basa en el grado de comprensión aceptable para las personas interlocutoras; la comunicación intercultural no se define en términos de perfección, sino de suficiencia, aceptando siempre un cierto grado de incertidumbre. Normalmente, la competencia es considerada en términos de habilidades o conjunto de comportamientos, aunque éstos pueden ser apropiados en unas situaciones y en otras no; por tanto, la competencia comunicativa intercultural debe tener en cuenta que el comportamiento es apropiado y efectivo en un contexto dado (Lustig y Koester, 1996; Spitzberg, 2000). Este contexto se basa no sólo en la cultura, sino también en aspectos como el lugar en el que se produce ese encuentro comunicativo, las relaciones que se dan entre los interactuantes (amistad, laboral, amorosa...) y el motivo de esa comunicación. En resumen, la competencia comunicativa intercultural se entiende como el conjunto de habilidades cognitivas y afectivas para manifestar comportamientos apropiados y efectivos en un contexto social y cultural determinado que favorezcan un grado de comunicación suficientemente eficaz. Diversas investigaciones han intentado aislar criterios y condiciones generales para alcanzar esta competencia comunicativa intercultural, llegando a conclusiones como los siguientes: la necesidad de establecer una cierta proximidad cultural, lenguaje común, cierto conocimiento y conciencia de las otras culturas y de la propia, cierto interés en aprender de las otras culturas, conciencia del propio etnocentrismo, tener la capacidad de empatizar, la capacidad de metacomunicarse, o evitar relaciones desiguales. Todos estos elementos suponen una cierta unión entre ámbitos de carácter cognitivo, afectivo, e incluso destacan algunos comportamientos.” (2008: 49)

Beraz, kulturarteko komunikazio-gaitasunaren arlo ezberdinak kontuan izanda, R. Vilák ezaugarri afektiboak, kognitiboak eta jarrerazkoak kontuan hartzen ditu. Hain zuzen ere, tasunok dira hizkuntza ezberdinetako ikasleak dituen irakasleak izan beharreko ezaugarriak:

Ezaugarri kognitiboak	Jarrera kontuan hartzen duten ezaugarriak	Ezaugarri afektiboak
<ul style="list-style-type: none"> Norberaren eta beste kulturen gutxieneko ezagutza 	<ul style="list-style-type: none"> Etorkinen hizkuntzaren eta kulturaren ezagutza orokorra, ez zehatza Hiztunek testuinguru jakinetara moldatu behar dute euren jarrera: gutxieneko ezagutza linguistikoaren bidez, keinuen bidez... Testuingurua aipatzean hurrengo ezaugarriez ari gara: kultura, tokia, igorlearen eta hartzailearen arteko erlazioa, komunikatzeko arazoia. 	<ul style="list-style-type: none"> Hizkuntza ezagutzea Metakomunikazioa Berdintasunean oinarritutako erlazioa Enpatia lantzeko gaitasuna

2.5. Irudia: Ezaugarri kognitiboak, afektiboak eta jarrera kontuan hartzen dutenak.

2.3. Gure proposamena kulturarteko komunikazio-gaitasunera bidean

Kulturarteko komunikazio-gaitasuna da, beraz, gaur egungo irakasleak garatu behar duen gaitasuna, eskola-eremuan hizkuntza eta kultura aniztasuna baitu, baina horretarako eskolan bertan hitz egiten diren hizkuntzen gutxieneko ezagutza orokorra izan behar du, eta orokortasun horren barnean, geure ustez, honako ezaugarri hauek sartu behar dira.

- Hizkuntzaren beraren oinarriko tasunak: izena, hizkuntz familia, hiztun kopurua, estatusa eta kokapen geografikoa.
- Hizkuntza ahoskatzeko irizpideak: bokalak, kontsonanteak, azentuera, tonu sistema.
- Idazkera sistema.

Esku artean dugun lan hau, hiru puntu horien arabera antolatzea erabaki dugu. Batez ere, aurkeztutako atal bakoitzean hurrengo lerroetan adierazten diren helburuok lortzea espero baitugu:

Alde batetik, irakasleak hizkuntzaren oinarriko tasunak ezagutzen baldin baditu, badaki aurrean dituen ikasleen kultura linguistikoa eta jatorrizko herrialdeko egoera soziolinguistikoa zein diren, baita euskara ikasteko orduan euren ama-hizkuntzaren ezaugarriak kontuan izanik, zailtasunik izan dezaketen ala ez. Zailtasunen bat izanez gero, irakasleak horri aurre egiteko bidea erraztu diezaioke material honek, ikaslearen jatorrizko hizkuntza eta hemen ikasiko duenaren arteko parekotasunik dagoen ala ez jakiten lagundu baitiezaioke. Era berean, hurrengo lan baterako utziko

dugu hurrengo ikerketa hau: ikaslearen jatorrizko hizkuntzaren arabera, ikaslearen ama-hizkuntzak zer eragin duen euskara ikasteen.

Beste alde batetik, lan honetan garrantzi berezia eman diogu ahoskerari; izan ere, irakasleak aurrean dituen hizkuntza arrotzen inguruko ahoskerari buruzko xehetasun batzuk jakiteak ikasleengana hurbiltzen lagun diezaioke; ikasleen izena egoki ahoskatzea esaterako, haur etorkinen motibaziorako nahiz egokitzapenerako urrats garrantzitsua izan daiteke; euskararekin parekotasunak egiteko ere baliagarria izan daiteke; izan ere, haur horien atzerriko hizkuntza izango denaren ikaskuntza erraztu daiteke.

Azkenik, idazkera sistemari dagokion atala dugu. Denok dakigu atzerriko hizkuntza batzuetako idazkera sistemak ez duela zerikusirik euskararenarekin, arabierarena nahiz txinerarena aipatzea besterik ez dago horretaz konturatzeko. Horrenbestez, irakasleak horien oinarriko ezagutza baldin badu, ikasleen motibazioa eta afektibotasuna bultzatzea eskolan jartzen diren iragarkiak euren jatorrizko hizkuntzan idatzita. Beharbada, horretarako ikasleen euren laguntza beharko du, baina horrela, euren burua eskola-eremuko partaide sentitzeaz gain, euren ama-hizkuntza baloratzen dela ulertuko dute, zein derragun bidenabar, jatorrizko ikasle euskaldunekin egiten ez baita. Bestalde, euskararen idazkera sistema ikasteko orduan arazoak baldin badituzte, irakasleak oztopo horiek gainditzen lagun diezaieke atzerriko hizkuntza horietako idazkera sistemarekin loturak eginez.

Honek ez du esan nahi beste atal batzuk ere landu beharko ez lirakekeenik: morfosintaxia, lexikoa (jatorrizko lexiko etnologikoa bereziki interesgarria izan liteke: meteorologia, familia, koloreak, denbora, e.a.). Esan bezala, aipatutako lexikoa oso erakargarria izan liteke ikasle-irakasleentzat mundu erreferentzialak ulertzeko.

Bukatzeko, L.Mijaresek (2007: 217-240) gai honen inguruan egindako ikerketa baten berri ematen digu, eta beharrezkoa deritzogu horren berri emateari, batez ere, irakurlea konturatu dadin zein garrantzitsua den gure ikasle etorkinen hizkuntzaren nondik norako nagusienak ezagutzea.

Aipatutako ikerketa Madrilgo Erkidegoko institutu batean egin zen 2003-2004 ikasturtean. Zentro horretako ikasle gehienak marokoarrak ziren eta irakasleek arabiera ikastea erabaki zuten elkar hobeto ulertzeko. Irakasle horiek oztopo batekin topo egin zuten euren ikasleekin arabieraz hitz egiten hasi zirenean, ikasleek ez zuten ulertzen zer esaten zuten. Zein zen arazoa? Bada, irakasleek arabiera klasikoa ikasi zuten eta jatorrizko herrialdean eskolatuak izan zirenek baino ez zuten ulertzen, etxean hitz egiten zutena ez baitzen hori.

Arazo horri aurre egiteko bi ikasle hautatu zituzten euren irakasleak izateko, eta hitz egiten zuten arabiera irakasteko. Aurrerapen handiak egin zituzten bai zentroko irakasleek, bai ikasleek, azken hauen kasuan motibazio-maila asko igo baitzen. Ikasturte horretan arabiera eskolak jaso zituzten irakasleek arabiera erabiltzen dute gaztelaniarekin konparatzeko, eta ondorio hauetara iritsi dira:

- Konparaketa horrek irakaslearen azalpenak aberastu egiten ditu.
- Irakasleak irakaslea bere errealitate kulturalera eta linguistikora hurbiltzen dela ikusten du.
- Irakasleek euren ama hizkuntzaz duten ezagutza baloratzen dela ikusten da.

Lan hau egin dugunok aipatutako helburu horiek lortzea nahiko genuke, ea benetan horrela den.

2.4. Laburbilduz

Gero eta etorkin gehiago gure artean izateak eskoletako etorkinen seme-alaben kopurua hazi egin du. Gizartean eta eremu akademikoan gertatu den aldaketa horrek bai irakasleen, bai ikasleen aldetik zenbait arazori aurre egin behar izana ekarri du, besteak beste:

- Hemengo hizkuntzak nahiz ikasgaiak ikasteko arazoak.
- Etorkinen hizkuntzan eta kulturaren arreta eskasa.
- Eskola curriculumarekin egokitzeko beharrezakoa.
- Irakasleak birziklatzeko ahalegina.

Honen aurrean, geure buruari sarritan egiten diogun galdera nola bideratuko ote dugun hori guztia da. Errealitatearen deskribapenak egiten dira, baita helburuak finkatu ere, baina beste toki batzuekin konparatuz, oso gutxi egin da irakasleak eta eskola bide aldapatsu horretan laguntzeko; izan ere, horrek guztiak hizkuntzekiko jarrera aldaketa eta baliabide gehiago suposatzen ditu.

3. HIZKUNTZAK

Gure inguruan 100 hizkuntzetik gora erabiltzen dira gaur egun (Uranga eta lag. 2008), guk honako 30 aurkeratu ditugu. Hauek aukeratu ditugu asko entzun daitezkeelako, izan ere, hizkuntzok egiten diren jatorrizko herrialdeetatik etorkin asko heldu dira gurera. Badira, horrekin lotutako beste arrazoi bi gure aukera hau egiteko; batetik, informazio iturri oparoak aurkitu ditugu; bestetik, informatzaileak aurkitu ahal izan ditugu kasu gehienetan.

Ez da gure asmoa, hizkuntza horien guztien sakontasunak eta xehetasunak ematea, alta, gurago izan dugu informazio homogeenak eta orokorrak ematea bakoitzeko, irakurleak sakon nahi baleza, amaieran ematen ditugun iturri bibliografikoetara jo lezake.

Hizkuntza bakoitzeko izena, hizkuntza-familia, hiztun kopurua, estatusa eta kokapen geografikoa ematen dugu. Datu hauek biltzeko hiru iturri nagusi erabili ditugu; Linguamón Casa des Llengües, L'aménagement linguistique dans le monde (Leclerc, 2010) eta Ethnologue: Languages of the World (Lewis, 2009). Hizkuntzaren bariazio diatopikoari dagokion egoera ere adieraziko da eta ahal izan den neurrian mapak ipini ditugu.

Ahoskeraren atalean bokalak, kontsonanteak eta kasu gehienetan azentuera, edo tonu sistema ere adierazten dugu; prosodiaren atala osatzekotzat, ahal izan dugunetan bai/ez eta n/z galderak egiteko erabiltzen diren erak adieraziko dira.

Idazkera sistema izango da aurkeztuko dugun beste gai bat. Honetarako Omiglot (Ager, 2010) deritzon orria ezinbesteko tresna izan da. Azkenik, gura izan dugu hizkuntza guztietan 15 berba jaso CDan entzun ahal izateko.

Hizkuntzen izen batzuk oso arruntak diren artean, beste batzuk euskaraz gutxitan baino ez dira erabili orainartekoan. Erabiltzen diren izenak eta euron grafiak atxikitzen ahalegindu garen arren, kasu batzuetan gure erabakiak hartu behar izan ditugu.

Hizkuntza-familia kontzeptua bera nahikoa eztabaidatua izaten da eta kasu guztietan ez datoz bat honen gainean egiten diren sailkapen guztiak. Honetan, sakondu gura ezta, ohikoak diren hizkuntz familien izenak erabili ditugu.

Eredu estandarra daukaten hizkuntzetan berorren ahoskera jaso gura izan dugu; hala ere, gogotan hartu behar da gure hiztunen dialektoaren eraginez, estandarretako ematen den soinua ez dela zertan izan gure informatzaileek emaneko bera. Arazo hau areagutzen da eredu estandarra ez

daukaten hizkuntzetan, eta hura edukita ere, tradizio eskasekoa den kasuetan. Honi buruz aski du irakurleak euskararen egoera bera gogotan erabiltzea arazoaren tamainarekin konturatzeko.

Hizkuntzaren izaera bera ez da berdin ulertzen leku guztietan, horregatik kasu batzuetan gure informatzaileek hizkuntzat hartzen dutena onartu dugu, izan ere, zenbaitetan (Mande hizkuntzetan esate baterako) continuum lektal baten egiten dira eta izen desberdinak erabili arren, ez dago argi hizkuntza bat den edo batzuk diren.

Hizkuntzen aurkezpena kontinenteen arabera sailkatuta egingo dugu; sailkapen hau hizkuntzei baino, gure informatzaileen etorkiari dagokie. Arabiera, esate baterako, kontinente bitan egiten da eta guk Afrikan aurkezten dugu, hain zuzen, gure informatzaileak afrikarrak izan direlako. Beste kontinente batzuetan egiten diren jatorri europarreko hizkuntza guztiak Europan kokatuko ditugu, nahiz eta, portugesearen kasuan legez, Basileko eta Portugaleko informatzaileak eduki ditugun. Jarraian agertuko diren kontinenteak Afrika, Amerika, Asia eta Europa izango dira.

3.1. Afrika

Afrika da hizkuntza aniztasunik handiena biltzen duen kontinentea, denetara 1500 hizkuntzatik 2000 hizkuntzara egiten direla uste da; era berean, gure artera hizkuntz gehien ekarri dituen ere bada (52 denetara, Uranga eta lag. 2008). Hizkuntzok bost familia nagusitan banatuta daude: Afroasiarra, Niger-Kongoarra, Nilo-Sahararra, Khoisan hizkuntzak eta Autronesiarra (azken honen barruan Madagaskarren erabiltzen den hizkuntza dugu soilik).

Kontinentearen iparraldean hedatzen den familia afroasiarra lau taldetan banatzen da: Semitikoa, Berber hizkuntzen taldea, Kuxitikoa eta Txadarra. Niger-kongoar familian hizkuntza asko batzen dira, Senegaletik, Kenyaraino eta Hegoalderaino hedatzen dira hizkuntza hauek. Talderik garrantzitsuenak honako hauek dira: Mande, Kordofandarrak, Gur, Kwa, Atlantiarrak, Benue-Kongoarra, Bantuarrak, e.a. Familia bi hauen tartean Nilo-sahararrak hedatzen dira hainbat gunetan. Azkenik khoisan familia hegoaldeko gunen batzuten egiten da. Hauez gain, eta kolonizazioaren ondorioz, ingelesa, frantsesa, portugesa eta espainiera ere erabiltzen dira.

Guk hemen 8 hizkuntzen datuak biltzen ditugu: Arabiera, Amazigh, Mandinkera, Joruba, Igboera, Lingala eta Wolof.



3.1. Irudia: Afrikako hizkuntzen kokapen geografikoa.

3.1.1. Arabiera

Jatorria: Ekialde Hurbila eta Ipar Afrika: Saudi Arabian, Aljerian, Bahrainen, Komoreetan, Djibutin, Egipton, Arabiar Emirerri Batuetan, Eritrean, Yemenen, Iranen, Iraken, Israelen, Jordanian, Kuwaiten, Libanon, Libian, Malin, Marokon, Mauritanian, Nigerren, Omanen, Palestinan, Qatarren, Mendebaldeko Saharan, Senegalen, Sirian, Somalian, Sudanen, Tunisian, Turkian, Zipren.

Familia: Afroasiarra>Arabiarra

Hiztunak: 250 milioi


Estatusa: Arabiera ofiziala da Aljerian, Saudi Arabian, Bahrainen, Komoreetan, Djibutin, Egipton, Arabiar Emirerri Batuetan, Eritrean, Yemenen, Iraken, Israelen, Jordanian, Kuwaiten, Libanon, Libian, Marokon, Mauritanian, Omanen, Palestinan, Qatarren, Mendebaldeko Saharan, Sirian, Somalian, Sudanen, Tunisian eta Txaden. Nigerren hizkuntz babestua da eta ez dago onartuta Iranen, Malin, Senegalen, Turkian eta Zipren.



3.2. Irudia: Arabieraren hedadura.

Arabiar hizkuntzaren barruan daude arabiera literarioa edo klasikoa eta gaur egun erabiltzen diren dialekto ugariak, arabiera klasikotik datozenak. Arabiera klasiko gaurkotua da egungo arabiera estandar modernoa. Berau da hiztun guztiek erabiltzen dutena elkarri ulertzeko eta eskoletan irakasten dena; era berean, berau da hizkuntza formala.

Geografikoki, dialektoak bi taldetan sailkatu daitezke: ekialdekoak (Siriakoa, Libanokoa, Palestinakoa, Egiptokoa) eta mendebaldekoak (Libia, Maroko, Tunisia, Aljeria, e.a.). Ondoko irudian dialektoen hedadura geografikoa ikus daiteke:



3.3. Irudia: Arabieraren dialekto nagusiak.

Marokon egiten den arabierari “Darija” esaten zaio eta Saharan egiten denari, aldiz, Hassaniera. Hemen aldaera bi horien datuak emango ditugu arabiera estandarrekin batera.

Bokalak

	Aurrekoa	Erdikoa	Atzekoa
Itxia	i		u
Irekia		a	

Arabiera klasikoan hiru bokal labur eta luze bereizten dira, *zamal* (gamelua), *zama:l* (edertasuna). Dialektoetan /e/, /o/ eta /ə/ ere erabiltzen dira.


Hotsa	Adibideak	Hotsa	Adibideak
[i]	kitāb (liburua)	[i:]	tilmīd (ikaslea)
[a]	alam (mina)	[a:]	ālam (minak)
[u]	kutub (liburuak)	[u:]	sabbūra (arbela)

Kontsonanteak

	Ezp	EzHor	Hor	Horar	Enfa	Pos	Sab	Bel	Ubu	Far	Glo
Hers	b			t d	t ^ʕ d ^ʕ			k	q		ʔ
Sud	m			n							
Fri		f	θ ð	s z	s ^ʕ ð ^ʕ	ʃ			χ ʁ	ħ ʕ	h
Afr						dʒ					
Dar				r							
Alb				l							
Hur	w						j				

Arabierak kontsonante enfatikoak edo faringalizatuak ere badauzka /t^ʕ/, /d^ʕ/ eta /s^ʕ/ *d^ʕdda* (kontra), *t^ʕifl* (umea), *s^ʕufr* (horia).

Arabierak bere alfabetoa erabiltzen du, berau arabieraz idazteko ez eze, Afrika eta Asiako hizkuntza askotan idazteko ere erabiltzen da. Bokalak ez dira adierazten ez bada ikur berezien bidez (3.4. irudia).



3.4. Irudia: Bokalak adierazteko erabiltzen diren ikurrak.

Kontsonante hotsen adibideak ematean, hots bakoitzeko alfabetoaren ikurra ipini dugu eta baita “Trans.” zutabeen berori transliteratzeko erabiltzen dena.

Alfabetoa	Hotsa	Trans.	Adibideak
ب	[b]	“b”	ab (aita)
ت	[t]	“t”	tilmīd (ikaslea)
د	[d]	“d”	wahīd (eguzkia)
ط	[t ^ʕ]	“t ^ʕ ”	tīfl (umea)

ض	[dʕ]	“d”	arḍ (lurra)
ك	[k]	“k”	kalb (txakurra)
ق	[q]	“q”	qaṣir (baxua)
ا	[ʔ]	“...”	‘alif (letra izena)
م	[m]	“m”	mašā (ibili)
ن	[n]	“n”	ḥizāna (armairua)
ف	[f]	“f”	‘arafa (jakin)
ث	[θ]	“t”	ṭalāta (hiru)
ذ	[ð]	“d”	tilmīd (ikaslea)
س	[s]	“s”	šajara (zuhaitza)
ز	[z]	“z”	ḥizāna (armairua)
ش	[sʕ]	“š”	šadiq (laguna)
ظ	[ðʕ]	“z”	naẓara (begiratu)
ش	[ʃ]	“š”	mašā (ibili)
ح	[χ]	“h”	ḥizāna (armairua)
غ	[ɣ]	“g”	ganiyy (aberatsa)
ح	[ħ]	“h”	waḥīd (eguzkia)
ع	[ʕ]	“‘ ”	‘āl (altua)
ه	[h]	“h”	huwa (bera)
ج	[dʒ]	“j”	jā (etorri)
ر	[r]	“r”	šajara (zuhaitza)
ل	[l]	“l”	layla (gaua)
و	[w]	“w”	waḥīd (eguzkia)
ي	[j]	“y”	yad (eskua)

Gure informatzailea Morokokoa izan da, eta horren ondorioz CDan entzun daitezkeenak dialekto horretako ondoko hots hauek dira:

Hotsa	Trans.	Adibideak	Hotsa	Trans.	Adibideak
[b]	“b”	bakra (behia)	[ʃ]	“š”	faasha (tximeleta)
[t]	“t”	baten (sabela)	[χ]	“h”	ax (anaia)
[d]	“d”	balad (herria)	[ɣ]	“g”	gaba (basoa)
[k]	“k”	kamiza (alkandora)	[ħ]	“h”	ḥmar (gorria)
[q]	“q”	erkik (argala)	[ʕ]	“‘ ”	zaila (familia)
[ʔ]	“...”	faasha (tximeleta)	[h]	“h”	laham (okela)
[m]	“m”	kama (ohea)	[dʒ]	“j”	daja (oiloa)
[n]	“n”	banana (banana)	[r]	“r”	errauz (arroza)
[f]	“f”	asfar (horia)	[l]	“l”	balad (herria)
[s]	“s”	kasag (gogorra)	[w]	“w”	emziwen (polita)
[z]	“z”	kamiza (alkandora)	[j]	“y”	elyad (eskua)

Arabiera estandarrean azentuaren kokapena aurreikus daiteke, izan ere, berau lotuta agertzen da silaben kualitateekin. Azentua ezartzeko arauak ondokoak dira:

- Azentua azken hiru silabetan baino ezin koka daiteke.
- Azken silaba super astuna (hau da, bokal luzea eta kontsonantez amaitua dena) azentuatzen da.
- Horrelakorik egon ezean, azkenurrekoa azentuatzen da astuna bada.
- Arabiera estandarrean azken silaban bokal luzea egonda ere, berori ez da azentuatzen. *kitāábun* (liburua), *kāátibun* (idazlea), *máktabun* (idazmahaiak), *makáátibun* (idazmahaiak), e.a.

Bai/ez galderak egiteko esaldiaren hasieran kokatuta praktikula bi erabiltzen dira eredu klasikoan: “hal” eta “’a” (1) eta (2). Marokoko arabieraz “waš” erabil daiteke. Gaur egun galdera hauek intonazioaren bidez egiten dira osagaien ordena aldatu barik. N/z galderetan galdetzailea esaldiaren hasieran kokatzen da (4).

- (1) *hal dahabta li šira?*
Gal. joan erostera
(erostera joango zara?)
- (2) *a- dahabta li šira?*
Gal. joan erostera
(erostera joango zara?)
- (4) *mann qara?a kitaaban?*
nor irakurri liburua
(nor ari da liburua irakurtzen?)

3.1.2. Amazigh



Amazigh da hizkuntzaren izena, nahiz eta bereberea, kabilia eta beste hainbat izen erabiltzen diren.

Amazigha batez ere ahozko hizkuntza da eta hainbat dialektotan zatituta dago; euron arteko aldeak oso nabarmenak izan daitezke. Dialekto garrantzitsuenak honako hauek dira: kabileria edo taqbaylit eta taxauita Aljerian; rifiera edo tarifit, tamazigha eta taxelhita Marokon eta tuareg dialektoak Aljeria, Niger, Mali eta Burkina Faso arteko basamortuan.

Bokalak

	Aurrekoa	Erdikoa	Atzekoa
Itxia	i		u
Irekia		a	

Horiez gain /ə/ ere agertzen da balio fonologiko barik; /e/ eta /o/ ere ager daitezke zenbait gauzatzetan eta kanpoko hitzekin.

Hotsa	Adibideak	Hotsa	Adibideak
Gaztelaniak azentu lexikoa dauka, azentua azken hiru silabetako baten txertatzen da: *número* (zenbakia), *numéro* (zenbatzen dut), *numeró* (zenbatu zuen).

Bai/ez galderetan osagaien ordena aldatu egiten da batzuetan, horrez gain galderazko intonazioa erabiltzen da (1-2). N/Z galderetan galdetzailea esaldiaren hasieran kokatzen da (3).

(1) *el perro ha entrado*
(txakurra sartu da)

(2) *ha entrado el perro?*
(txakurra sartu da?)

(3) *Dónde está el hijo?*
(non dago semea?)


3.4.4. Frantsesa

Jatorria: Belgika, Burkina Faso, Burundi, Kamerun, Kanada, Afrika Erdiko Errepublika, Komoreak, Kongoko Errepublika, Kongoko Errepublika Demokratikoa, Boli Kosta, Djibuti, Frantzia, Frantziar Guiana, Frantziar Polinesia, Gabon, Guadalupe, Haiti, Luxenburgo, Madagaskar, Mali, Martinika, Maurizio, Mayotte, Monako, Kaledonia Berria, Reunion, Ruanda, Senegal, Seychelleak, Suitza, Togo, Vanuatu.

Familia: Indoeuroparra>Erromantzea


Hiztunak: 120 milioi

Estatua: Ofiziala: Frantzian, Belgikan, Suitzan, Monakon, Jersey, Val d'Aostan (Italia), Luxenburgon, Beninen, Burkina Fason, Burundin, Kamerunen, Kongoko Errepublikan, Kongoko Errepublika Demokratikoan, Boli Kostan, Djibutin, Gabonen, Ginean, Ekuatore Ginean, Madagaskarren, Malin, Nigerren, Afrika Erdiko Errepublikan, Ruandan, Senegalen, Seychelleetan, Togon, Txaden, Pondicherry lurraldean (India), Vanuatun. Legez onartuta: Louisianan (Estatu Batuak). Ez dago onartuta: Estatu Batuetako gainerako lurraldeetan.



3.30. irudia: Europako frantsesaren hedadura.

Frantsesa hainbat dialektotan zatituta dago, 3.31. irudian Frantzian bertan egiten direnak ikus daitezke.



3.31. irudia: Europako frantsesaren dialektuak.

Bokalak

	Aurrekoa -bir	Aurrekoa +bir	Erdikoa	Atzekoa
Itxia	i	y		u
Erd-itxia	e	ø		o
Erd-irekia	ɛ	œ	ə	ɔ
Irekia			a	

/ɛ/, /œ/, /a/ eta /ɔ/ ahokariak ez eze, sudurkariak ere izan daitezke: /ɛ̃/, /œ̃/, /ã/ eta /ɔ̃/.

Hotsa	Grafia	Adibideak	Hotsa	Grafia	Adibideak
[i]	“i”	lit (ohea)	[u]	“ou”	loup (otsoa)
[e]	“é, e, ai”	les (-ak)	[o]	“o, ô”	lot (saria)
[ɛ]	“ê, è, e”	laid (itsusia)	[ɔ]	“o, ô”	lor (izena)
[ə]	“e”	je (ni)	[ɛ̃]	“e + n/m”	lin (lihoa)
[a]	“a”	las (nekatuta)	[œ̃]	“eu, oeu + n/m”	lundi (astelehena)
[y]	“u, û”	lu (irakurria)	[ã]	“a + n/m”	lent (geldoa)
[ø]	“eu, oeu”	le (-a)	[ɔ̃]	“o + n/m”	long (luzea)
[œ]	“eu, oeu”	leur (euren)			

Kontsonanteak


	Ezp	Ezho	Alb	Pos	Sab	Bel	Ubu
Hers	p b		t d			k g	
Sud	m		n		ɲ		
Fri		f v	s z	ʃ ʒ			ʁ
Alb			l				

Hotsa	Grafia	Adibideak	Hotsa	Grafia	Adibideak
[p]	“p”	père (aita)	[f]	“f”	café (kafea)
[b]	“b”	bonbons (bonboiak)	[v]	“v”	avion (hegazkina)
[t]	“t”	tante (izekoa)	[s]	“s, ç”	sous (azpian)
[d]	“d”	déjeuner (gosaria)	[z]	“z, s”	zoo (zoo)
[k]	“k/qu”	café (kafea)	[ʃ]	“ch”	chou (aza)
[g]	“g”	gants (eskularruak)	[ʒ]	“j”	déjeuner (gosaria)
[m]	“m”	madame (andrea)	[ʁ]	“r”	roue (txirringa)
[n]	“n”	nous (gu)	[l]	“l”	lait (esnea)
[ɲ]	“gn”	agneau (bildotsa)			

Frantsesez azentua fixoa da eta talde prosodikoaren azken silaban txertatzen da beti (1): [apó] (bildotsa). Bai/ez galderak egiteko era bi erabiltzen dira, “Est-ce que” (1) erabilia edo galderako intonazioaren bidez (2). N/z galderetan galdetzailea esaldiaren hasieran kokatzen da (3).

- (1) *Est-ce que le président vient?*
(Badator lehendakaria)
- (2) *Tu aimes la philosophie?*
(Filosofia gustatzen zaizu?)
- (3) *Qui est venu?*
(Nor sartu da?)

3.4.5. Katalana

<p>Jatorria: Andorra, Espainia, Frantzia eta Italia Familia: Indoeuroparra>Erromantzea Hiztunak: 9 milioi Estatua: Ofiziala: Andorran, Kataluniako Printzerrian, Valentzian eta Balear Uharteetan. Legez onartuta: Algheron, Sardinian (Italia). Babes generikoa: Ipar Katalunian eta Sartaldeko Zerrendan. Ez dago onartuta: El Carxen.</p>

<p>3.32. irudia: Katalanaren hedadura.</p>

Katalanean bi dialekto nagusi bereizten dira: ekialdeko katalana eta mendebaldekoa. Ekialdekoan lau dialekto sartzen dira: erdiko katalana, irletakoa edo balearra, iparraldekoa edo roselloiera, eta algherera. Bigarrenengo taldean, berriz, ipar-mendebaldeko katalana eta hegoaldekoa edo valentziera.

Gaur egungo katalan estandarra XIX. mende bukaeran hasi zen osatzen, eta guztiz finkatua gelditu zen XX. mendeko lehenengo hamarkadetan, ortografia modernoa (1913. eta 1917. urteetan) ezarri zenean eta gramatika (1918. urtean) eta hiztegi (1932) arau-emaileak argitaratu zirenean. Katalan estandarrak eskualde bakoitzean bertako aldaerak onartzen ditu. Katalanaren hizkeren arteko hurbiltasuna dela eta, hizkuntzak dituen dialekto handi guztietan oinarritu zen, ez bakar batean, nahiz eta arrazoi demografikoengatik eta kulturalengatik erdiko dialektoak besteek baino pisu handiagoa izan; eta horregatik, garai hartako autogobernuko erakundeen laguntzarekin, Printzerrian ez ezik, gainerako Herrialde Katalanetan ere onartu zen.



3.33. irudia: Katalanaren dialektoen hedadura.

Bokalak

	Aurrekoa	Erdikoa	Atzekoa
Itxia	i		u
Erd-itxia	e		o
Erd-irekia	ɛ		ɔ
Irekia		a	

Bokal hauek honela erabiltzen dira silaba azentudunetan; silaba azentugabeetan hirura murrizten dira: /i/, /ə/ eta /u/

Grafia	Hotsa	Adibideak
“a”	[a], [ə]	casa (etxea)
“e”	[ɛ], [e], [ə]	net (iloba), verd (berdea)
“i”	[i]	fill (semea)
“o”	[ɔ], [o], [u]	home (gizona), sol (eguzkia)
“u”	[u]	ull (begia)

Kontsonanteak

	Ezp	EzHor	Alb	Pos	Sab	Bel
Hers	p b		t d			k g
Sud	m		n		ɲ	
Fri		f v	s z	ʃ ʒ		
Afr				tʃ dʒ		
Dar			r r			
Alb			l		ʎ	

Grafia	Hotsa	Adibideak
“b”	[b], [p]	bo (ona), braç (besoa)
“c”	[s], [k]	bicicleta (bizikleta), cos (gorputza)
“ç”	[s]	braç (besoa)
“d”	[d], [t]	dona (andrea)
“f”	[f]	foc (sua), fill (semea)
“g”	[g], [k], [ʒ], [tʃ]	gall (oilarra), germà (anaia)
“j”	[ʒ]	joc (jokoa), jove (gaztea), pijama (pijama)
“l”	[l]	escola (eskola), lavabo (komuna)
“m”	[m]	mare (ama), muntanya (mendia)
“n”	[n]	nou (berria)
“p”	[p]	pare (aita)
“q”	[k]	esquena (bizkarra)
“r”	[r], [r]	sorra (harea), pare (aita)
“s”	[s], [z]	sol (eguzkia)
“t”	[t]	tarda (arratsaldea)
“v”	[b]	vell (zaharra), ovella (ardia)
“x”	[ʃ], [gz], [ks]	maduixa (mailukia), baix (baxua)
“z”	[z]	colze (ukondo), esmorzar (gosaria)

Hauezagain “h”, “k”, “y” eta “w” ere erabiltzen dira. Azentu grabea eta akutua erabiltzen dira (è, é) eta dieresia (ì). Letra konbinazioak ere erabiltzen dira soinu bereziak adierazteko (gu, ig, ix, ll, ny, qu, rr, ss, tg, tj, ts, tx eta tz).

Katalanak azentu lexikoa dauka, azentua azken hiru silabetako baten txertatzen da: *filla* (alaba), *catalá* (katalana), *típica* (tipikoa).

Bai/ez galderetan osagaien ordena aldatu eta galderazko intonazioa erabiltzen da (1-2). N/Z galderetan galdetzaila esaldiaren hasieran kokatzen da (3).

(1) *el gos ha entrat*
(txakurra sartu da)

(2) *ha entrat el gos?*
(txakurra sartu da?)

(3) *on és el fill?*
(non dago semea?)

3.4.6. Italiara

<p>Jatorria: Italia, Malta, Somalia, Libia, Etiopia Familia: Indoeuroparra>Erromantzea Hiztunak: 70 milioi Estatua: Ofiziala: Italian, San Marinoa, Suitzan, Kroaziako Istria eskualdean, italiarrak bizi diren Esloveniako udalerrietan, Vatikanon Hirian. Legez onartuta: Monakon</p>
<p>3.36. irudia: Italiaren hedadura.</p>

Dialekto italiarrak hiru talde handitan banatzen dira: iparraldekoa, toskanarra eta erdi-hegoaldekoa. Dialekto hauek elkarrengandik urrun kokatuta dauden hainbat eskualde ezberdinetan hitz egindako latinaren bilakaeraren ondorio direnez, oso ezberdinak izan daitezke batzuetan, eta elkar ulertzea ere oso zail gerta daiteke.



3.37. irudia: Italieraren dialektoen hedadura.

Bokalak

	Aurrekoa	Erdikoa	Atzekoa
Itxia	i		u
Erd-itxia	e		o
Erd-irekia	ɛ		ɔ
Irekia		a	

Grafia	Hotsa	Adibideak
“a”	[a]	casa (etxea)
“e”	[e], [ɛ]	bello (polita), terra (lurra)
“i”	[i]	amico (laguna)
“o”	[o], [ɔ]	notte (gaua), giorno (eguna)
“u”	[u]	uccello (txoria)

Kontsonanteak

	Ezp	Ezho	Alb	Pos	Sab	Bel
Hers	p b		t d			k g
Sud	m		n		ɲ	
Fri		f v	s z	ʃ		
Afr			ts tz	tʃ dʒ		
Dar			r r			
Alb			l		ʎ	

Hotsa	Grafia	Adibideak	Hotsa	Grafia	Adibideak
[p]	“p”	piccolo (txikia)	[s]	“s”	rossa (gorria)
[b]	“b”	bello (polita)	[z]	“z”	casa (etxea)
[t]	“t”	terra (lurra)	[ʃ]	“sc”	schiena (bizkarra)
[d]	“d”	dente (hortza)	[ts]	“z”	ragazza (neska)
[k]	“c”	casa (etxea)	[dz]	“z”	zia (izekoa)
[g]	“g”	gallo (oilarra)	[tʃ]	“c”	cielegia (gerezia)
[m]	“m”	amico (laguna)	[dʒ]	“g”	giorno (eguna)
[n]	“n”	notte (gaua)	[r]	“rr”	terra (lurra)
[ɲ]	“gn”	bagno (bainua)	[r]	“r”	pecora (ardia)
[f]	“f”	famiglia (familia)	[l]	“l”	piccolo (txikia)
[v]	“v”	vento (haizea)	[ʎ]	“gl”	aglio (berakatzia)

Italieraz kontsonante bikoitzak egiten dira: *Anna, pubblico, notte*.

Italierak azentu lexikoa dauka: *parló* (berba egin zuen), *párlo* (berba egiten dut) *cása* (etxea), *intelligénte* (azkarra), *púbbllico* (publikoa), *felicítá* (zoriontasuna).

- (1) *Suo marito è ancora malato.*
bere senarra da oraindik gaixorik
(bere senarra oraindik dago gaixorik)
- (2) *Suo marito è ancora malato?*
bere senarra da oraindik gaixorik
(bere senarra oraindik dago gaixorik?)
- (3) *ha entrato il cane*
sartu da txakurra
(txakurra sartu da)
- (4) *ha entrato il cane?*
sartu da txakurra
(txakurra sartu da?)
- (5) *Dov'è il figlio?*
non dago semea
(non dago semea?)

3.4.7. Errumaniera

Jatorria: Errumania, Moldavia, Ukrainako mendebaldean, Serbian (Voivodina eta Serbia erdialdeko ekialdeko eskualdean), Bulgariako iparraldean, Greziako ipar-ekialdean, Albaniako erdialdean eta hegoaldean eta Mazedonian.
Familia: Indoeuroparra>Erromantzea
Hiztunak: 24 milioi
Estatusa: Ofiziala: Errumaniar, Moldavian, Voivodinian (Serbian). Legez onartuta: Ukrainan, Hungarian. Babes generikoa: Mazedonian, Bulgarian, Albanian. Ez dago onartuta: Grezian.



Errumanieraren hizkera ezberdinak lau dialekto-bloketan biltzen dira: Daziako errumaniera da nagusia, eta askotan errumaniera esaten zaio, besterik gabe; beste hiru dialektoak arumanera, meglenera eta istriera dira.



Bokalak

	Aurrekoa	Erdikoa	Atzekoa
Itxia	i	î	u
Ertaina	e	ə	o
Irekia		a	

Hotsa	Grafia	Adibideak	Hotsa	Grafia	Adibideak
[i]	“i”	insulă (irla)	[ə]	“ă”	ăsta (hau)
[e]	“e”	necaz (bete)	[o]	“o”	oraș (hiria)
[a]	“a”	apă (ura)	[u]	“u”	aduc (nekarren)
[î]	“î”	coborî (baxatu)			

Kontsonanteak

	Ezp	Ezho	Alb	Pos	Sab	Bel	Glo
Hers	p b		t d			k g	
Sud	m		n				
Fri		f v	s z	ʃ ʒ			h
Afr			ts	tʃ dʒ			
Dar			r				
Alb			l				

Hotsa	Grafia	Adibideak	Hotsa	Grafia	Adibideak
[p]	“p”	spate (ezpata)	[s]	“s”	case (etxeak)
[b]	“b”	ban (dirua)	[z]	“z”	zid (horma)
[t]	“t”	tare (astuna)	[ʃ]	“ș”	șarpe (sugea)
[d]	“d”	vinde (saldu zuen)	[ʒ]	“j”	ajutor (laguntza)
[k]	“c”, “k”	cal (zaldia)	[ts]	“ț”	soț (senarra)
[g]	“g”	pungă (poltsa)	[tʃ]	“c”	cer (zerua)
[m]	“m”	mic (txikia)	[dʒ]	“g”	ger (izotza)
[n]	“n”	nor (hodeia)	[h]	“h”	horn (tximinia)
[f]	“f”	foc (sua)	[r]	“r”	repede (arin)
[v]	“v”	val (olatua)	[l]	“l”	lung (luzea)

Azentu lexikoa: *módele* (diseinatzailea) *modéle* (maketak), *copîl* (umea). Esaldi deklaratuak eta galderazkoak intonazioaren bidez bereizten dira (1-2). N/z galderetan galdetzailea esaldiaren hasieran kokatzen da (3-4)

(1) *a intrat cînnele*
sartu da txakurra
(txakurra sartu da)


(2) *a intrat cînnele?*
sartu da txakurra
(txakurra sartu da?)

(3) *unde a intrat?*
(non sartu da?)

(4) *Cine vine?*
(Nor dator?)

3.4.8. Alemana

Jatorria: Alemania, Austria, Suitza, Liechtenstein, Belgika, Italia, Frantzia, Luxenburgo, Danimarka
Familia: Indoeuroparra>Germaniarra
Hiztunak: 105 milioi
Estatusa: Ofiziala: Alemanian, Austrian, Belgikan (germaniar aldean), Italian (Trentino - Hego Tirol probintzian), Luxenburgon, Suitzan eta Liechtensteinen. Legez onartuta: Danimarkan, Polonian, Hungarian, Txekiar Errepublikan, Errumanian, Ukrainan, Eslovakian, Estonian, Asowo eta Halbstadt barrutietan (Errusiar Federazioan) eta Namibian. Babes generikoa: Errusiar Federazioko beste barrutietan, Frantzian, Kroazian, Eslovenian, Letonian, Lituania eta Serbian.



Alemanak bi dialekto-bloke dauzka: behe-alemana iparraldean eta goi-alemana erdi eta hegoaldean.



Bokalak				
	Aurrekoa -bir	Aurrekoa +bir	Erdikoa	Atzekoa
Itxia	i	y		u
Ia itxia	ɪ	ʏ		ʊ
Erd-itxia	e	ø	ə	o
Erd-irekia	ɛ	œ		ɔ
Irekia			a	

/ɛ/ eta /a/ laburrak zein luzeak izan daitezke /ɛ:/ eta /a:/.

	Adibideak	Hotsa	Adibideak
[i]	igel (kirikinoa)	[œ]	völlig (osorik)
[ɪ]	bitten (eskatu)	[ə]	bitte (eskaria)
[e]	lesen (irakurri)	[a]	alt (altua)
[ɛ]	Däne (daniarra)	[ɔ]	Gold (urrea)
[y]	früh (goizetik)	[o]	Boot (txalupa)
[ʏ]	dünn (argala)	[ʊ]	butter (gurina)
[ø]	öfen (estufa)	[u]	gut (ona)

Kontsonanteak

	Ezp	Ezho	Alb	Pos	Sab	Bel	Glo
Hers	p b		t d			k g	?
Sud	m		n			ŋ	
Fri		f v	s z	ʃ ʒ	ç	χ ʁ	h
Afr		pf	ts				
Alb			l				
Hur					j		

Hotsa	Grafia	Adibideak	Hotsa	Grafia	Adibideak
[p]	“p”	Park (parkea)	[s]	“s”	fest (irmoa)
[b]	“b”	Buch (ondorioa)	[z]	“s”, “ss”	sonne (eguzkia)
[t]	“t”	Tante (denda)	[ʃ]	“sch”	schule (eskola)
[d]	“d”	Ding (gauza)	[ʒ]	“j”	journal (egunkaria)
[k]	“c”, “k”	Käse (gazta)	[ç]	“ch”	chemie (kimika)
[g]	“g”	Gast (bezeroa)	[χ]	“ch”	buch (ondorioa)
[ʔ]	–	‘Apfel (sagarra)	[ʁ]	“r”	rot (gorria)
[m]	“m”	Mann (gizona)	[h]	“h”	haus (etxea)
[n]	“n”	Nase (sudurra)	[pf]	“pf”	‘Apfel (sagarra)
[ŋ]	“ng”	Junge (mutikoa)	[ts]	“z”	Zimmer (gela)
[f]	“f”	fisch (arraina)	[l]	“l”	lied (kanta)
[v]	“f”, “v”	Welt (mundua)	[j]	“j”	jung (gaztea)

Alemanez azentu lexikoa erabiltzen da, kasu gehienetan azentua erroaren lehen silaban kokatzen den arren.

(1) *Der Lehrer **trink-t** das Wasser.*

irakaslea edan ura
(irakaslea ura edaten ari da)

(2) ***Trink-t** der Lehrer das Wasser?*

edan irakaslea ura
(irakaslea ura edaten ari da)

(3) *Wo ist der Sohn?*

(non dago semea)


3.4.9. Ingelesa

Jatorria: Ameriketako Estatu Batuak, Australia, Erresuma Batua, Kanada, Zeelanda Berria, e.a.
Familia: Indoeuroparra>Germaniarra
Hiztunak: 500 milioi
Estatua: Ofiziala: Britainia Handiko Erresuma Batuan eta Ipar Irlandan (baita koroaren menpe dauden tokietan eta itsasoaz haraindiko lurraldeetan ere), Irlandako Errepublikan, Maltan, Amerikako Estatu Batuetan, Kanadan, Australian, Zeelanda Berrian, Hegoafrikar Errepublikan, Botswanan, Kamerunen, Gambian, Ghanan, Kenyan, Lesothon, Liberialan, Malawin, Namibian, Nigerian, Sierra Leonan, Swazilandian, Ugandan, Zambian, Zimbawen, Indian, Pakistanen, Singapurren, Hong Kongen, Puerto Ricon, Belizen, Antigua eta Barbudan, Bahametan, Barbadosen, Dominikan, Grenadan, Jamaikan, Saint Kitts eta Nevisen, Santa Luzian, Saint Vincent eta Grenadinetan, Trinidad eta Tobagon, Birjina Uharte Amerikarretan, Guamen, Hawaiiin, Cook uharteetan, Fijin, Ipar Marianetan, Salomonen, Kiribatin, Mikronesiako Estatu Federatuetan, Naurun, Niuen, Palaun, Samoan, Tongan, Tuvalun, Ruandan, Papua Ginea Berrian, Tanzanian, Filipinetan, Vanuatun eta Ipar Samoan. Legez onartuta: Israelen, Sint Maartenen (Holandarren Antillak), Malaysian eta Zipren.




3.41. irudia: Ingelesaren hedadura.

Leku askotan erabiltzen denez gero, dialekto asko dauka ingelesak; jarraian ematen ditugun irudietan Erresuma Batuko eta Estatu Batuetako dialekto banaketak ikus daitezke.



3.42. irudia: Ingalaterrako Ingelesaren dialektoen hedadura.



3.43. irudia: Estatu Batuetako Ingelesaren dialektoen hedadura.

Bokalak

	Aurrekoa	Erdikoa	Atzekoa -bir	Atzekoa +bir
Itxia	i:			u
Ia itxia	ɪ		ʊ	
Erd-itxia	ɛ	ɜ:		
Ia irekia	æ		ʌ	ɔ
Irekia			ɑ:	ɒ

Bokal batzuk laburrak dira eta beste batzuk luzeak

Hotsa	Adibideak	Hotsa	Adibideak
[i:]	read (irakurri)	[ɒ]	not (ez)
[ɪ]	sit (jesarri)	[ɜ:]	America (Amerika)
[ɛ]	men (gizonak)	[ʌ]	but (baina)
[æ]	cat (katua)	[ʊ]	book (liburua)
[ɜ:]	word (hitza)	[u]	too (ere)
[ɑ:]	part (partea)		

Kontsonanteak

	Ezp	Ezho	Hor	Alb	Pos	Sab	Bel	Glo
Hers	p b			t d			k g	
Sud	m			n			ŋ	
Fri		f v	θ ð	s z	ʃ ʒ			h
Afr					tʃ dʒ			
Alb				l				
Hur				ɹ		j		

Hotsa	Adibideak	Hotsa	Adibideak
[p]	pig (txerria)	[ð]	the (-a)
[b]	bed (ohea)	[s]	six (sei)
[t]	time (denbora)	[z]	zoo (zoo)
[d]	do (egin)	[ʃ]	short (laburra)
[k]	kilo (kiloa)	[ʒ]	casual (bide batezkoa)
[g]	go (joan)	[h]	hello (kaixo)
[m]	milk (esnea)	[tʃ]	church (eliza)
[n]	no (ez)	[dʒ]	judge (epailea)
[ŋ]	sing (kantatu)	[ɹ]	red (gorria)
[f]	five (bost)	[l]	live (bizi izan)
[v]	very (oso)	[j]	yes (bai)
[θ]	think (pentsatu)		

Ingelesez erabiltzen den alfabetoa ondoko hau da; bereiz paratzeko erabakia hartu dugu, hotsen eta grafemen arteko korrespondentzia oso urria delako.


A a	B b	C c	D d	E e	F f	G g	H h	I i
J j	K k	L l	M m	N n	O o	P p	Q q	R r
S s	T t	U u	V v	W w	X x	Y y	Z z	

Ingelesez azentua lexikoa da eta bereizketak egin daitezke: *insult* (iraina) *insúlt* (iraindu), *présent* (oparia), *presént* (oparitu).


Bai/ez galderak egiteko “do” aditza erabiltzen da edota aditzaren ordena aldatuta. N/z galderetan galdetzailea esaldiaren hasieran kokatzen da.

- (1) *The dog is come in*
(txakurra sartu da)
- (2) *Is the dog come in?*
(txakurra sartu da?)
- (3) *Do you believe in miracles?*
(Mirarrietan sinesten duzu?)
- (4) *Who discovered America?*
(Nork aurkitu zuen Amerika?)
- (5) *What does he buy?*
(Zer erosi du berak?)

3.4.10. Norvegiara

<p>Jatorria: Norvegia Familia: Indoeuroparra>Germaniarra Hiztunak: 4,7 milioi Estatua: Ofiziala Norvegian</p>

<p>3.44. irudia: Norvegiaren hedadura.</p>

Hizkuntza estandar bi erabiltzen dira; dialekto askotan zatituta dagoen arren, elkarren arteko aldeak ez dira oso handiak. Lau talde nagusi bereizten dira, Iparraldekoa, Trøndelag, Ekialdekoa eta Mendebaldekoa.



3.45. irudia: Norvegiaren dialektoen hedadura.

Bokalak

	Aurrekoa -bir		Aurrekoa +bir		Erdikoa		Atzekoa	
Itxia	i:		y:		u	u:	u	u:
Ia itxia	ɪ		ʏ				ʊ	
Erd-itxia	e	e:	ø:		ə		o:	
Erd-irekia	æ	æ:	œ					
Irekia					a	a:	ɒ	

Ondoko taulan Norvegiararen alfabetoan erabiltzen diren bokalen adibide batzuk paratu ditugu:

“a”	“e”	“i”
arm (besoa)	ben (hanka)	finger (atzamarra)
“o”	“u”	“y”
bok (liburua)	bukse (fraka)	lyn (tximista)
“æ”	“ø”	“å”
pære (madaria)	sønn (semea)	år (urtea)

Bokalak eta kontsonanteak luzeak eta laburrak izan daitezke; silaba itxietan edo kontsonante bikoitz baten aurrean eskuarki bokala luzea izaten da: *mo:r* (ama), *so:l* (eguzkia), *ta:k* (teilatua), *takk* (eskerrik asko), *pe:n* (polita), *penn* (boligrafoa), *go:d* (ona, mas.), *godt* (ona, neutroa).

Kontsonanteak

	Ezp	Ezho	Hor	Alb	Pos	Err	Sab	Bel	Glo
Hers	p ^h b			t ^h d		t ^h d		k ^h g	
Sud	m			n		ŋ		ŋ	
Fri		f		s	ʃ		ç		h
Dar				r					
Alb				l					
Hur		ʊ					j		

Hotsa	Grafia	Adibideak	Hotsa	Grafia	Adibideak
[p ^h]	“p”	pen (polita)	[ŋ]	“ng”	ung (gaztea)
[b]	“b”	bil (autoa)	[f]	“f”	fontene (iturria)
[t ^h]	“t”	tante (izeba)	[s]	“s”	sand (harea)
[d]	“d”	dør (atea)	[ʃ]	“sky”	sky (hodeia)
[t ^h]	“rt”	fortau (espaloia)	[ç]	“kj”	kjøkken (sukaldea)
[d]	“rd”	bord (mahaia)	[h]	“h”	hund (txakurra)
[k ^h]	“k”	katt (katua)	[r]	“r”	radio (irratia)
[g]	“g”	gutt (mutila)	[v]	“v”	vann (ura)
[m]	“m”	måne (ilargia)	[j]	“je”	hjem (etxea)
[ŋ]	“n”	nese (sudurra)	[l]	“l”	lav (baxua)
[ŋ]	“rn”	barn (umea)			

Norvegieraren dialekto batzuetan azentu tonuduna dagoen arren, berau galduz doala pentsa liteke, izan ere, barietate askotan azentuaren eta silaben kualitatearen arteko erlazioaren arabera txertatzen da azentua. Azentua lehen silaban txertatzen da berori astuna denean: *ánsikt* (aurpegia), *béstefar* (aitita), *bítter* (garratza).

Bai/ez galderetan osagaien orden aldaketa eta intonazioa erabiltzen dira (1) eta (2). N/z galderetan galdetzailea hasierako gunean kokatzen da.

(1) *Du ser mora*
zu ikusi ama
(zuk ama ikusten duzu)

(2) *Ser du mora?*
ikusi zu ama
(zuk ama ikusten duzu?)

(3) *Når bring du?*
zer ekarri zu
(zer ekarri duzu zuk?)

3.4.11. Netherlandera

Jatorria: Herbehereak, Holandarren Antillak, Aruba, Surinam, Belgika, Frantzia, Alemania eta Indonesia
Familia: Indoeuroparra>Germaniarra
Hiztunak: 22 milioi
Estatua: Ofiziala: Herbeheretan, Belgikan, Surinamen, Aruban eta Holandarren Antilletan. Babes generikoa: Frantzian. Ez dago onartuta: Alemanian



3.46. irudia: Netherlanderaren hedadura.

Netherlanderaren dialektoak honako hauek dira: holandera, mendebaldeko flandesera (zelandararekin), brabantera (ekialdeko flandeserarekin) eta linburgera.



3.47. irudia: Niderlanderaren dialektoen hedadura.

Bokalak

	Aurrekoa -bir	Aurrekoa +bir	Erdikoa	Atzekoa
Itxia	i	y		u
Ia itxia	ɪ	ʏ		
Erd-irekia	ɛ	œ	ə	ɔ
Irekia			a:	ɑ

Hotsa	Grafia	Adibideak	Hotsa	Grafia	Adibideak
[i]	“i”	kip (oilaskoa)	[a:]	“aa”	baad (bainua hartu)
[ɪ]	“ie”	biet (erremolatxa)	[ə]	“e”	de (-a)
[ɛ]	“e”	bed (ohea)	[u]	“oe”	hoed (kapela)
[y]	“uu”	fuut (txori mota bat)	[ɔ]	“o”	bot (hezurra)
[ʏ]	“u”	hut (kabina)	[ɑ]	“a”	bad (bainua)
[œ]	“eu”	neus (sudurra)			

Kontsonanteak

	Ezp	Ezho	Hor	Alb	Sab	Bel	Glo
Hers	p b			t d		k	
Sud	m			n		ŋ	
Fri		f v		s z		χ	ɦ
Dar				r			
Alb				l			
Hur		ʋ			j		

Hotsa	Grafia	Adibideak	Hotsa	Grafia	Adibideak
[p]	“p”	pen (bolaluma)	[v]	“v”	oven (labea)
[b]	“b”	biet (erremolatxa)	[s]	“s”	sok (galtzerdia)
[t]	“t”	tak (adarra)	[z]	“z”	zeep (xaboitokia)
[d]	“d”	dak (teilatua)	[χ]	“ch”	acht (zortzi)
[k]	“k”	kat (katua)	[h]	“h”	hoed (kapela)
[m]	“m”	mens (gizakia)	[r]	“r”	rat (arratoia)
[n]	“n”	nek (iduna)	[l]	“l”	land (herria)
[ŋ]	“ng”	eng (beldurrezkoa)	[v]	“w”	wang (masaila)
[f]	“f”	fiets (bizikleta)	[j]	“j”	jas (berokia)

Nederlanderaz azentua lexikoa da: *sérviz* (serbiarra), *servíz* (afari zerbitzua), *béken* (apurtuak), *bekén* (aitor ezazu), *vóorkomen* (gertatu), *voorkómen* (aurreikusit).

Bai/ez galderak egiteko aditz morfologia eta hitzen ordena erabiltzen dira (‘T Hart 1998) (1).

- (1) *Heeft Peter een nieuwe auto gekocht?*
(Peter-ek erosi du auto berria?)

3.4.12. Poloniera

Jatorria: Polonian, Bielorrusiako mendebaldean, Ukrainako mendebaldean, Lituaniako ekialdean, Txekiar Errepublikako ipar-ekialdean, Eslovakian, Hungarian, Letoniako hego-ekialdean, Errumaniako iparraldean.

Familia: Indoeuroparra>Eslaviarra


Hiztunak: 38 milioi

Estatua: Ofiziala: Polonian. Legez onartuta: Ukrainan, Lituanian, Eslovakian, Hungarian. Babes generikoa: Txekiar Errepublikan, Letonian, Errumanian. Ez dago onartuta: Bielorrusian.



3.48. irudia: Polonieraren hedadura.

Polonierak sei dialekto ditu: poloniera handia, marzoviera, poloniera txikia, podlakiera, pomeraniera eta silesiera.



3.49. irudia: Polonieraren dialektoen hedadura.

Bokalak

	Aurrekoa	Erdikoa	Atzekoa
Itxia	i	i	u
Ertaina	e		o
Irekia		a	

Erdiko bokala /i/ da euskaraz ez daukagun bakarra, ortografian “y” erabiltzen da: syn (semea), ty (zu). /e/ eta /o/ sudurkariak izan daitezke /ě/ eta /ǔ/, ortografian “ę” eta “ą” erabiltzen dira: *węże* (sugeak), *mogę* (ahal dut); *wąz* (sugea) *mąz* (senarra).

Hotsa	Grafia	Adibideak	Hotsa	Grafia	Adibideak
[i]	“i”	miś (pelutxezko hartza)	[i]	“y”	mysz (sagua)
[e]	“e”	ten (hauxe)	[o]	“o”	kot (katua)
[a]	“a”	kat (borreroa)	[u]	“u”	bum (zalaparta)

Kontsonanteak

	Ezp	EzHor	Alb	Erre	Alsa	Sab	Bel
Hers	p b		t d				k g
Sud	m		m			ɲ	
Fri		f v	s z	ʃ ʒ	ɛ ʒ		x
Afr			ts dz	tʃ dʒ	tɕ dʒ		
Dar			r				
Alb			l			ʎ	
Hur						j	w

Hotsa	Grafia	Adibideak
[p]	“p”	pas (gerrikoa)
[b]	“b”	bas (baxua)
[t]	“t”	tom (bolumena)
[d]	“d”	dom (etxea)
[k]	“k”	kmin (arbol mota), buk (pagoa)
[g]	“g”	gmin (populazioa)
[m]	“m”	masa (masa)
[n]	“n”	noga (hanka)
[ɲ]	“ń”, “n(i)”	koń (zaldia)
[f]	“f”	futro (larrua)
[v]	“w”	Warszawa (Varsovia)
[s]	“s”	sam (berbera)
[z]	“z”	zero (zero)
[ʂ]	“sz”	szum (xuxurlatu)
[ʐ]	“ż”, “rz”	żona (emaztea) rzeka (ibaia)
[ɕ]	“ś”, “s(i)”	śruba (torlojua)
[ʒ]	“ź”, “z(i)”	źrebię (zaldikumea)
[x]	“h”, “ch”	hak (gantxo), chór (koroa)
[ts]	“c”	baca (artzaina)
[dz]	“dz”	dzwon (kanpaia)
[tʂ]	“cz”	czas (denbora)
[dʒ]	“dż”	dżem (mermelada)
[tɕ]	“ć”, “c(i)”	ćma (gau txirpilota)
[dʑ]	“dź”, “dz(i)”	dźwięk (soinua)
[r]	“r”	krok (pausua)
[l]	“l”	pole (zelaia)
[ɫ]	“l(i)”	liść (orria)
[j]	“j”	jutro (bihar)
[w]	“v” “f”	wór (poltsa)
[kʲ]	“k(i)”	kiedy (noiz)
[gʲ]	“g(i)”	gips (igeltsua)

Herskari belare sabaikarizatuak ere erabiltzen dira: /kʲ gi/. Kontsonanteen taula aztertuta, euskararen aldean alderik nabarmenena frikari eta afrikatuen sailetan ikusten ditugu. /v/ ezpain horzkaria, ortografian, “w”: wyspa (irla) pierwszy (lehena). Albeolaretan /s/ eta /z/ erabiltzen dira: sum (katuarraina), zero (zeroa). Erretroflexuak /ʂ/ eta /ʐ/ ortografian “sz” eta “ż / rz”: *szum* (xuxurlatu), *żona* (emaztea) *rzeka* (ibaia). Albeolo sabaikarrietan /ɕ/ eta /ʒ/, ortografian “ś” eta “ź”, ditugu: *śruba* (torlojua), *źrebię* (zaldikumea). Afrikatuetan albeolareak /ts/ “c” /dz/ “dz”, *co* (zer), *dzwon* (kanpaia); erretroflexuak /ʂ/ “cz” eta /ʐ/ “dż”, *czas* (denbora) *dżem* (gozokia); albeolo sabaikarrietan /tɕ/ “ć” eta /dʑ/ “dź”, *ćma* (gau tximeleta), *dźwięk* (soinua).

Azentua fixoa da eta azkenurreko silaban txertatzen da (2): ráno (goiza), gotówy (prestatura).

Bai/ez galderak egiteko nahikoa da intonazioa erabiltzea (2), “czy” partikula erabiltzen denean, esaldiaren hasieran kokatuta, formaltasun handiagoa ematen zaio esalidari (3). N/z galderetan galdetzaila esaldiaren hasieran paratzen da (4).

- (1) *Basia ma kota*
 Basia dauka katua
 (Basiak katua dauka)
- (2) *Basia ma kota?*
 Basia dauka katua
 (Basiak katua dauka?)
- (3) *Czy Basia ma kota?*
 Gal Basia dauka katua
 (Ba al dauka Basiak katua?)
- (4) *Kogo lubisz?*
 (Zein gustatzen zaizu?)

3.4.13. Ukrainiera

Jatorria: Ukrainan, Errusiako hego-mendebaldean, Moldavian, Poloniako ekialdean, Bielorrusian, Errumaniako hego-ekialdean eta iparraldean, Eslovakiako ipar-ekialdean, Serbiako ipar-ekialdean, Hungarian, Kroaziako ekialdean, Letonian eta Lituanian.

Familia: Indoeuroparra>Eslaviarra


Hiztunak: 47 milioi

Estatua: Ofiziala: Ukrainan, Vojvodinako Probintzia Autonomoan (Serbiar Errepublikan). Legez onartuta: Polonian, Hungarian, Eslovakian eta Kroazian. Babes generikoa: Bielorrusian, Errumaniar, Errusiar Federazioan. Ez dago onartuta: Moldavian.



3.50. irudia: Ukraineraren hedadura.

Ukraineran hiru dialekto daude: iparraldekoa, hego-mendebaldekoa eta hego-ekialdekoa.



3.51. irudia: Ukraineraren dialektoen hedadura.

Bokalak

	Aurrekoa	Erdikoa	Atzekoa
Itxia	і		u
Ia itxia	І		
Ertaina	є		о
Irekia			а

Alfabetoa	Trans	Hotsa	Alfabetikoa	Adibidea
А а	a	/a/	áвтор	ávtor (egilea)
Е е	e	/ε/	Еверéст	Everést (Everest)
И и	y	/i/	мíр	mýr (bakea)
І і	i	/i/, /i/	іволга	ívolha (oriola)
О о	o	/o/	óко	óko (begia)
У у	u	/u/	ýспіх	úspix (arrakasta)

Kontsonanteak

	Ezp	EzHor	Hor	Hor pal	Pos	Bel
Hers	p b		t d	tʃ dʃ		k g
Sud	m		n	nʃ		
Fri		f v	s z	sʃ zʃ	ʃ ʒ	x ɣ
Afr			ts dz	tsʃ dzʃ	tʃ dʒ	
Dar			r	rʃ		
Alb			l	lʃ		

Kontsonante gehienak bikoitzak izan daitezke: v́nya (erruduna), viddátý (erregalatu), oblýčč'a (aurpegia), podrúžž'a (andra-gizonak).

Alfabetoa	Trans	Hotsa	Alfabetikoa	Adibidea
П п	p	[p]	пóле	póle (kanpoa)
Б б	b	[b]	бáнк	bánk (bankua)
Т т	t	[t], [tʃ]	тíгр	týhr (tigrea)
Д д	d	[d], [dʃ]	двéрі	dvéři (atea)
К к	k	[k]	кáзка	kázka (ipuina)
Ґ ґ	g	[g]	ґрúнт	grúnt (zola)

М м	m	[m]	ма́ма	máma (ama)
Н н	n	[n], [nʲ]	на́встіж	návstizh (guztiz ireki)
Ф ф	f	[f]	фа́рба	fárba (pintura)
В в	v	[v]	ве́зти	vézty (eroan)
С с	s	[s], [sʲ]	се́рце	sérce (bihotza)
З з	z	[z], [zʲ]	зна́ти	znáty (jakin)
Ш ш	š	[ʃ]	ша́нс	sháns (aukera)
Ж ж	ž	[ʒ]	жо́втий	zhóvtyj (horia)
Х х	x, ch	[x]	ха́та	xáta (baserria)
Г г	h	[h], [ɣ]	го́лос	hólos (ahotsa)
Ц ц	c	[ts], [tsʲ]	це́нтр	céntr (zentroa)
Ч ч	č	[tʃ]	ча́й	cháj (tea)
Щ щ	šč	[ʃtʃ]	ща́стя	shhástyá (zoriontasuna)
Р р	r	[r], [rʲ]	ра́діо	rádio (irratia)
Л л	l	[l], [lʲ]	ла́мпа	lámpa (lanpara)

Ukraineraz azentu lexikoa da: *hólovy* (buruak) *holový* (buruaren). Bai/ez galderetan “čy” partikula erabil daiteke esaldiaren hasieran, hala ere, erabilera hau ez da derrigorrezkoa; galderazkoak, intonazioa eta osagaien ordena, aldatuta egin daitezke (1) eta (2). N/z galderetan galdetzailea esaldiaren hasieran kokatzen da (3).

- (1) *sobaka dexo*
txakurra sartu da
(txakurra sartu da)
- (2) *dexo sobaka?*
sartu txakurra
(sartu da txakurra?)
- (3) *Xto dexo?*
(nor sartu da?)

3.4.14. Errusiera

Jatorria: Errusiar Federazioan, Ukrainan (Krimean), Bielorrusian, Moldaviako ipar-ekialdean eta hego-mendebaldean, Letonian, Estonian, Lituanian, Finlandian, Polonian, Errumaniako hego-ekialdean, Bulgarian, Kazakhstanen, Kirgizistanen, Georgiako iparraldean, Armenian, Azerbaijanen, Tadjikistanen, Turkmenistanen, Uzbekistanen.

Familia: Indoeuroparra>Eslaviarra

Hiztunak: 285 milioi

Estatusa: Ofiziala: Errusiar Federazioan; Bielorrusian; Abkhazian; Moldaviako Transnistria Errepublikan, Gaugaziako Batatasun Autonomoan (Moldaviar Errepublikan). Legez onartuta: Ukrainan; Moldavian; Finlandian; Polonian; Lituanian; Hego Osetian; Kazakhstanen; Kirgizistanen; Tadjikistanen. Babes generikoa: Armenian, Estonian, Letonian, Azerbaijanen, Georgian, Bulgarian, Errumanian. Ez dago onartuta: Turkmenistanen, Uzbekistanen.



3.52. irudia: Errosieraren hedadura.

Eskuarki dialekto talde bi bereizten dira, iparraldekoa eta hegoaldekoa. Hizkuntza estandarra Mosku inguruko lurraldeetan hitz egiten diren erdialdeko trantsizioko aldaeretan oinarritzen da.



3.53. irudia: Errosieraren dialektoen hedadura.

Bokalak

	Aurrekoa	Erdikoa	Atzekoa
Itxia	i		u
Ertaina	e		o
Irekia		a	

Taulako bokalez gain /i/ eta /ə/ era agertzen dira. Hala ere, euren izaera fonologikoa eztabaidagarria da.

Alfabetoa	Hotsa	Alfabetikoa	Adibidea
“и”	[i]	рыба	ryba (arraina)
“э”	[e]	зеркало	zerkalo (ispilua)
“а”	[a]	кошка	koshka (katua)
“о”	[o]	собака	sobaka (txakurra)
“у”	[u]	улитка	ulitka (karakola)

Kontsonanteak

	Ezp	Ezho	Alb	Erre	AlbSa	Sab	Bel
Hers	p b		t d				k g
Sud	m		n				
Fri		f v	s z	ʃ ʒ	ɛ ʒ		x
Afr			ts		tɕ		
Dar			r				
Alb			l				
Hur						j	

Alfabetoa	Hotsa	Alfabetikoa	Adibidea
п	[p], [pʲ]	пяточок	pjatachok (muturra)
б	[b], [bʲ]	собака	sobaka (txakurra)
т	[t], [tʲ]	тигр	tigr (tigrea)
д	[d], [dʲ]	дверь	dver' (atea)
к	[k], [kʲ]	кошка	koshka (katua)
г	[g]	друг	drug (laguna)
м	[m], [mʲ]	мышь	mysh' (sagua)
н	[n], [nʲ]	окно	okno (leiho)
ф	[f], [fʲ]	телефон	telefon (telefonoa)
в	[v], [vʲ]	кровать	krovat' (ohea)
с	[s], [sʲ]	собака	sobaka (txakurra)
з	[z], [zʲ]	зеркало	zerkalo (ispilua)
ш	[ʃ]	мышь	mysh' (sagua)
ж	[ʒ]	гараж	garazh (garajea)
щ	[ɕ]	щенок	shchenok (kumea)
х	[x]	кухня	kukhnja (sukaldea)
ц	[tɕ]	поцелуй	potseluj (mosua)
ч	[tɕ]	пяточок	pjatachok (muturra)
р	[r], [rʲ]	рыба	ryba (arraina)
л	[l], [lʲ]	улитка	ulitka (karakola)
й	[j]	поцелуй	potseluj (mosua)

Errusieraz azentu lexikala dago (Svetozarova, 1998): *múka* (ahaladura)-*muká* (irina), *xód'it* (doa), *xad'it'* (joan), *vixad'it'* (kanpora joan).

Bai/ez galderetan galderazko intonazioa erabiltzen da eskuarki (1) (2); hala ere, “vi-“ partikula ere erabil daiteke esaldi osoaren hasieran kokatuta (3). N/z galderetan galdetzailea esaldiaren hasieran kokatzen da (4).


(1) *sobaka voshla*
(txakurra sartu da)

(2) *sobaka voshla?*
(txakurra sartu da?)

(3) *vi mina slixiti?*
Gal. entzuten didazu?
(entzuten al didazu?)

(4) *Kamu piridat?*
(Nork emango lidake?)

3.4.15. Lituania

<p>Jatorria: Lituania, Errusia, Letonia, Polonia, Bielorrusia, Estonia Familia: Indoeuroparra>Baltiarra Hiztunak: 4 milioi Estatua: Hizkuntza ofiziala Lituania, legez onartuta Polonian, babesa dauka Errusiar Federazioan, Letonian eta Estonian. Bielorrusian ez dago onartuta.</p>

<p>3.54. irudia: Lituaniaren hedadura.</p>

Lituanierak oso desberdinak diren dialekto bloke bi dauzka behe-lituaniera eta goi-lituaniera. Estandarra goi-lituanieran oinarritzen da. Ondoko mapan dialektoen banaketa erakusten da:



3.55. irudia: Lituaniaren dialektoen hedadura

Bokalak

	Aurrekoa	Erdikoa	Atzekoa
Itxia	i:		u:
Ia itxia	ɪ		ʊ
Erd-itxia	e:		o:
Erd-irekia	ɛ		ɔ
Ia irekia	æ	ɐ	
Irekia		a	

Hotsa	Grafia	Adibideak	Hotsa	Grafia	Adibideak
[i:]	“i”	medį (zuhaitza)	[a:]	“a”	ažuolas (haritza)
[ɪ]	“i”	pinigai (dirua)	[u:]	“u”	senų (zaharra, gen.)
[e:]	“e”	saulė (eguzkia)	[ʊ]	“u”	ugnis (sua)
[ɛ]	“e”	bet (baina)	[o:]	“o”	voras (armiarma)
[æ]	“e”	tęsti (jarraitu)	[ɔ]	“o”	telefonas (telefonoa)
[ɐ]	“a”	namas (etxea)			

Taulan ikusten den moduan, bokal batzuk laburrak izaten dira, eta beste batzuk luzeak; ez dirudi, beraz, luzera bereizgarria denik.

Kontsonanteak

	Ezp	Ezho	Alb	Erre	Bel
Hers	p b		t d		k g
Sud	m		n		
Fri		f	s	ʃ ʒ	
Afr			ts dz	tʃ dʒ	
Dar			r		
Alb			l		

Hotsa	Grafia	Adibideak	Hotsa	Grafia	Adibideak
[p]	“p”	pinigai (dirua)	[s]	“s”	saulė (eguzkia)
[b]	“b”	bet (baina)	[ʃ]	“š”	šaltas (beroa)
[t]	“t”	tęsti (jarraitu)	[ʒ]	“ž”	ažuolas (haritza)
[d]	“d”	dabar (orain)	[ts]	“c”	tradicija (tradizioa)
[k]	“k”	kainas (mendia)	[dz]	“dz”	kamikadzė (kamikazea)
[g]	“g”	miegas (logurea)	[tʃ]	“č”	čia (hemen)
[m]	“m”	medį (zuhaitza)	[dʒ]	“dž”	džiova (tuberkulosia)
[n]	“n”	namas (etxea)	[r]	“r”	voras (armiarma)
[f]	“f”	telefonas (telefonoa)	[l]	“l”	ažuolas (haritza)

Lituanieraren azentu sistema nahikoa konplexua da; batzuetan azentu tonuduntzat jo izan da eta beste batzuetan azentu morfologikoduntzat (Dogil, 1999). Azken honen arabera, morfema azentudun eta azentubakoen arteko desberdintasuna egiten da. Berba baten morfema azentudun bat

baino gehiago dagoenean lehena da gailentzen dena, ez badago morfema azentudunik, orduan lehen bokalean txertatzen da azentua. Bestetik, morak kontatzen dira eta horren arabera silaba astunak eta arinak ere bereizten dira. Mora biko silabetan (bokal luzeak, diptongoak eta bokal laburrak sonorante batekin) (˘) eta (^) azentu moldeak egiten dira. Gainerako kasuetan (˘) azentua erabiltzen da, baina berau ez dirudi kontrastiboa denik. *kóšê* (purea) *kôšê* (egitekoa egin); *áušta* (hoztu) *aûšta* (eguna egin); *drîmba* (alperra) *drîmba* (erori); *kâltas* (erruduna) *kâltas* (formoia); *týrê* (aztertzen zuen) *týrê* (ahia).

Bai/ez galderetan “ar” partikula erabiltzen da (1). N/z galderetan galdetzailea esaldiaren hasieran kokatzen da (2-3).

(1) *Ar šuo turi teikti?*

Gal. txakurra sartu da
(txakurra sartu da?)

(2) *Kaip sekasi?*

zelan zaude
(zelan zaude?)

(3) *Kaš aš esu?*

nor ni naiz
(nor naiz ni?)

3.4.16. Hungariera

Jatorria: Hungaria, Errumania, Eslovakia, Serbia, Ukraina, Kroazia, Austria eta Eslovenia

Familia: Uralikoa>Fino-ugrikoa

Hiztunak: 13 milioi

Estatusa: Ofiziala: Hungarian, Esloveniako ipar-ekialdean eta Serbiako iparraldean (Voivodina probintzian). Legez onartuta: Austrian, Kroazian, Eslovakian eta Ukrainan. Babes generikoa: Errumanian.



3.56. irudia: Hungarieraren hedadura.

Hungarieran zortzi dialekto bereizten dira: mendebaldekoa, transdanubiera, ipar-mendebaldekoa, hegoaldekoa, ipar-ekialdekoa, tisaera, transilvaniera eta szekelyera.

Bokalak

	Aurrekoa -bir	Aurrekoa +bir	Erdikoa	Atzekoa
Itxia	i	y		u
Ertaina	e	ø		o
Irekia			a	

Hotsa	Grafia	Adibideak	Hotsa	Grafia	Adibideak
[i]	“i”	bika (zezena)	[i:]	“í”	víz (ura)
[e]	“e”	fej (burua)	[e:]	“é”	fehér (zuria)
[y]	“ü”	fül (belarria)	[y:]	“ő”	eső (euria)
[ø]	“ö”	öreg (zaharra)	[ø:]	“ó”	kő (harria)
[a]	“á”	ágy (ohea)	[a:]	“a”	ablak (leioa)
[o]	“o”	orr (sudurra)	[o:]	“ó”	ajtó (atea)
[u]	“u”	juh (ardia)	[u:]	“ú”	kút (iturria)

Bokal guztiak laburrak eta luzeak izan daitezke: “irt” (suntsitua), “írt” (idatzia), “vész” (hartu), vész (izurritea).

Harmonia bokalikoa egiten da, atzizkien bokalak erroaren bokalen arabera aldatzen dira. Aurreko bokalak eta atzekoak ez dira eskuarki erro berean agertzen, hau argi ikusten da flexio atzizkiak gehitzean: *ház-ban* (etxe batean), *kéz-ben* (eskuan), *fal-nak* (hormari), *kert-nek* (lorategiari)

Kontsonanteak

	Ezp	Ezho	Alb	Pos	Sab	Bel	Glo
Hers	p b		t d		c ʃ	k g	
Sud	m		n		ɲ		
Fri		f v	s z	ʃ ʒ			h
Afr			ts dz	tʃ dʒ			
Dar			r				
Alb			l				
Hur					j		

Hotsa	Grafia	Adibideak	Hotsa	Grafia	Adibideak
[p]	“p”	apa (aita)	[s]	“s”, “sz”	száj (ahoa)
[b]	“b”	bika (zezena)	[z]	“z”	víz (ura)
[t]	“t”	kút (iturria)	[ʃ]	“es”	eső (euria)
[d]	“d”	dió (intxaurra)	[ʒ]	“zse”	szem (begia)
[c]	“ty”	kutya (txakurra)	[h]	“h”	juh (ardia)
[ʃ]	“gy”	ágy (ohea)	[ts]	“c”	ceruza (lapitza)
[k]	“k”	bika (zezena)	[dz]	“dz”	edző (entrenatzailea)
[g]	“g”	fog (hortza)	[tʃ]	“cs”	család (familia)
[m]	“m”	meleg (beroa)	[dʒ]	“dzs”	dzsungel (jungla)
[n]	“n”	nap (eguzkia)	[r]	“r”	rossz (txarra)
[ɲ]	“ny”	nyár (uda)	[l]	“l”	láb (hanka)
[f]	“f”	fül (belarria)	[j]	“j”, “ly”	golyóstoll (boligrafoa)
[v]	“v”	víz (ura)			

Azentu fixoa [1: *golyostoll* (boligrafoa), *csálad* (familia) *céruza* (lapitza), *bíka* (zezena). Azentu bigarrenkaria silaba bakoitietan txertatzen da: *bóldog* (zoriontsua) *bóldogsà:g* (zoriontasuna).

Bai/ez galderak intonazioaren bidez egiten dira (1). N/z galderetan galdetzailea esaldiaren hasieran kokatzen da (2).

(1) *Lekapcsoltad a villanyt?*

amatatu duzu argia
(amatatu duzu argia?)

(2) *Hol van a fiam?*

non dago semea
(non dago semea?)

3.4.17. Georgiera

<p>Jatorria: Georgia, Iran, Azerbaijan, Turkia, Errusia Familia: Hego Kaukasiarra Hiztunak: 4 milioi Estatua: Georgian hizkuntza ofiziala da. Azerbaijanen legez onartuta dago. Turkian ez dago onartuta</p>

<p>3.57. irudia: Georgieraren hedadura.</p>

Georgieraren dialektoetan talde nagusi bi egiten dira: mendebaldekoak eta ekialdekoak. Dialekto batzuk honako hauek dira: Imeretianera, Racha-Lechkhum, Gurianera, Ajarianera, Imerxev (Turkian), *Kartlianera*, *Kakhetianera*, *Ingilo*, *Tush*, *Khevsur*, *Mokhev*, *Pshav*, *Mtiul*, *Ferjeidanera* (Iranen) eta *Meskhetianera*.

Bokalak

	Aurrekoa	Erdikoa	Atzekoa
Itxia	i		u
Ertaina	e		o
Irekia		a	

Hotsa	Grafia	Adibideak	Hotsa	Grafia	Adibideak
/i/	“o”	didi (handia)	/o/	“o”	lurdji (urdina)
/e/	“j”	dge (eguna)	/u/	“j”	gogo (neska)
/a/	“s”	dafa (arbela)			

Georgierak, euskara estandarrak legez, bost bokal dauzkan arren, euron gauzapena ez dator guztiz bat; honen gainean Hillery, 2006, ikus daiteke.

Kontsonanteak

	Ezp	Ezho	Alb	Pos	Sab	Bel	Ubu	Glo
Hers	p b		t d			k g		
Eje	p'		t'			k'	q'	
Sud	m		n					
Fri		v	s z	ʃ ʒ		x ɣ		h
Afr			ts dz	tʃ dʒ				
Eje			ts'	tʃ'				
Dar			r					
Alb			l					

Hotsa	Grafia	Adibideak	Hotsa	Grafia	Adibideak
[p]	“ფ”	pepela (tximeleta)	[z]	“ზ”	zgva (itsasoa)
[b]	“ბ”	babua (aitita)	[ʃ]	“ჭ”	vaxli (sagarra)
[p']	“პ”	piri (ahoa)	[ʒ]	“ჯ”	mzave (garratza)
[t]	“თ”	tve (hilabetea)	[x]	“ხ”	ajali (berria)
[d]	“დ”	barda (ilarra)	[ɣ]	“ღ”	grubeli (hodeia)
[t']	“ტ”	talavari (jertsea)	[ts]	“ც”	tza (zerua)
[k]	“კ”	qali (andrea)	[dz]	“ძ”	dzma (anaia)
[g]	“გ”	gogo (neska)	[ts']	“წ”	tculi (loba)
[k']	“კ’	kbili (hortza)	[tʃ]	“ჩ”	chiti (txoria)
[q']	“ყ”	kuri (belarria)	[dʒ]	“ჯ”	todjina (panpina)
[m]	“მ”	mujli (belauna)	[tʃ']	“ჭ’	chiqa (kikara)
[n]	“ნ”	banani (banana)	[r]	“რ”	barda (ilarra)
[v]	“ვ”	vaxli (sagarra)	[l]	“ლ”	ajali (berria)
[s]	“ს”	aso (letra)			

Herskarietan eta afrikatueta ejektiboak erabiltzen dira: ქუდი /kudi/ (txanoa); კუდი /k'udi/ (buztana).

Georgieraz azentua erabiltzen den arren, beronen gauzatzea eztabaidan dagoen gaia da. Azentua berbaren silaba kopuruen arabera kokatzen da, baina ez dirudi arau fixorik dagoenik. Horregatik, azentu lexikoaz berba egin dezakegu. Berbak silaba 2 dauzkanean azentua lehen silaban kokatzen da, baina hiru silabakoa denean, lehen edo bigarren silaban egon daiteke (Jun eta lag. 2007): *tcéli* (urtea), *áso* (letra), *ájali* (berria), *banáni* (banana).

Bai/ez galderak egiteko intonazioa erabiltzen da, (1) deklaratuzailea eta (2) galdera. N/z galderetan galdetzailea esaldiaren hasieran kokatzen da kasu gehienetan (3).

- (1) *Dzagli xemovida*
txakurra sartu da
(txakurra sartu da)
- (2) *Dzagli xemovida?*
txakurra sartu da
(txakurra sartu da?)
- (3) *Ramdeni tclisa jar?*
zenbat urte daukazu
(zenbat urte daukazu?)


4. HOTSAK

Aurreko atalean hizkuntzak aztertzean agertu zaizkigun hots motez jardungo dugu atal honetan; jarduera hau, ezinbestez, azalekoa izangoa da. Hala ere, uste dugu ezen, ideia orokorra eman diezagukeela topa dezakegunaren gainean. Azalpenak burutu ahal izateko grabatu ditugun hizkuntzen datuez eta iturri bibliografikoez baliatuko gara. Bestalde, “*” ikurraren bidez adieraziko ditugu CDan entzun daitezkeen hotsak.

Atala hiru azpiatal nagusitan banatuta aurkeztuko dugu; lehen azpiatalean bokalak ikusiko ditugu, bigarren azpiatalean kontsonanteak eta, azkenik, hirugarren azpiatalean prosodiaz arituko gara.

4.1. Bokalak

Bokalak sailkatzeko eta deskribatzeko erabiltzen diren oinarritzko tasunak hiru dira: altuera (itxiera/irekiera maila), kokapena ahoaren barrunbean eta ezpainen biribiltasuna. Tasun hauen arabera eginiko sailkapena eta erabiltzen diren ikurrak 4.1. irudian ikus daitezke.



4.1. Irudia: IPAren bokalen sinboloak.

Bokalen kopuruei dagokienez, jaso ditugun hizkuntzetan oso sistema desberdinak aurkitzen ditugu (4.1. taula¹).

Kopurua	Hizkuntzak
3	Arabiera, Amazigh, Ketxua, Aimara eta Tagalo
5	Errusiera, Georgiera, Gaztelania, Japoniera
6	Guaraniera, Poloniera, Ukrainera
7	Mandinkera, Joruba, Lingalera, Galegoa, Italiara, Errumaniera
8	Igboera, Portugesa, Katalana
9	Wolof, Txinera, Hungariera
10	Punjabera
11	Frantsesa, Ingelesa, Nederlandera, Lituania
14	Alemania
15	Norvegiera

4.1. Taula: Bokal kopuruak hizkuntzen arabera.

¹ Hemen bokal kopuruei gagozkie, honek ez du esan gura bokalak batzuk direnik hizkuntza guztietan.

Aurreko ataleko hizkuntzetan aurkitu ditugun bokalak aurkezteko kokapena hartuko dugu oinarritzat. Dauzkagun hiru kokapenen arabera, bokalak aurrekoak, erdikoak eta atzekoak izan daitezke.

4.1.1. Aurreko bokalak

Aurreko bokalak 4.2. taulan agertzen direnak dira, bertan itxiera/irekiera mailak ikus daitezke, baita ezpainen biribiltasuna edo hain eza.

	Itxia		Erdi itxia	Erdi irekia		Irekia
-bir	i	ɪ	e	ɛ	æ	a
+bir	y	ʏ	ø	œ		œ

4.2. Taula: Aurreko bokalak.

Bokal ez biribildu guztiak agertu izan zaizkigu neurri batean edo bestean. 4.3. taulan bakoitza zein hizkuntzatan agertu den ikus daiteke.

Bokala	Hizkuntzak	Adibideak
/i/	Tagalon eta Georgieran izan ezik gainerako guztietan. Ingelesezt, Norvegieraz eta Lituaniaraz bokala luzea izaten da.	lit (ohea) Frantsesa frio (hotza) Portugesa fill (semea) Katalana
/ɪ/	Igboera, Punjabera, Tagalo, Alemana, Ingelesa, Norvegiera, Nederlandera, Ukrainiera, Lituania, Georgiera	didi (handia) Georgiera pinigai (dirua) Lituania bili (katuemea) Punjabera
/e/	Mandinkera, Joruba, Lingalera, Wolof, Guaraniera, Punjabera, Portugesa, Galegoa, Frantsesa, Katalana, Italiara, Errumaniera, Alemana, Norvegiera, Poloniera, Errusiera, Lituania, Hungaria. Lituaniaraz eta Hungarieraz luzea da.	les (-ak) Frantsesa dedo (atzamarra) Portugesa net (iloba) Katalana
/ɛ/	Mandinkera, Joruba, Igboera, Lingalera, Wolof, Txinera, Japoniera, Portugesa, Galegoa, Frantsesa, Katalana, Italiara, Alemana, Ingelesa, Nederlandera, Ukrainiera, Lituania, Hungaria, Georgiera	laid (itsusia) Frantsesa telha (teila) Portugesa verd (berdea) Katalana
/æ/	Punjabera, Ingelesa, Norvegiera, Lituania	tești (jarraitu) Lituania cat (katua) Ingelesa paise (dirua) Punjabera
/a/	Arabiera, Amazigh, Mandinkera, Joruba, Igboera, Lingalera, Wolof, Aimara, Ketxua, Guaraniera, Txinera, Japoniera, Punjabera, Portugesa, Galegoa, Frantsesa, Katalana, Italiara, Errumaniera, Alemana, Nederlandera, Poloniera, Errusiera, Lituania, Hungaria, Georgiera. Nederlandaraz eta Hungarieraz luzea da.	las (nekatuta) Frantsesa vaca (behia) Portugesa casa (etxea) Katalana

4.3. Taula: Aurreko bokal ez biribilduen adibideak.

Aurreko bokal biribilduetan askoz gutxiago agertu zaizkigu; /œ/ adibidez behin ere ez dugu jaso. Gainerakoen adibideak 4.4. taulan ikus daitezke.

